

# **LEIZARRAGA ETA LEIZARRAGATARRAK (1563-1571), ERREFORMA- KONTRARREFORMETAKO ILUN-ARGITAN**

Joseba Intxausti

---

---

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos  
Año 43. Tomo XL. N.º 1 (1995), p. 119-160  
ISSN: 0212-7016  
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Elizen arteko Biblia (1994) konfesioarteko argitalpena dela eta, Itun Berriaren lehen euskal itzulpena (Testamentu Berria, 1571) egin zeneko kultura inguruaren azalpena —bertakoa eta Europakoa— egiten da. Artikuluaren helburua Erreformaren bailan gertatu zen euskarazko prosaren sorreraren testuingurua ulertzen laguntzea da.

Mugimendu hark sustatu zuen Europa mailako erlijio argitalpenen programaren ikuspegi orokorra ematen da, zenbait literatura nazionalen oinarriak ezartzen lagundu zuten biblien itzulpenei (XVI. mendea) eta Kontinenteko biztanleriaren alfabetatzeari (XVII-XVIII. mendeak) bereziki erreparatuz.

Euskal Herrian —Iparraldean zein Hegoaldean—, 1523tik gutxienez, Erreformaren idazkiek izan zuten presentzia oroitzen da. Logroñoeko Inkisizioak, Euskal Herria haren barrutikoa baitzen, argitalpen horiek —haietariko zenbait euskarazkoak— kontrolatzen jartzen zuen arreta deskribatzen da.

Erreforma Katolikoak bere erlijio eta hizkuntza politika propioa markatu zuen predikuetan eta katekesian, baina baita liturgiari eta biblia itzulpenei dagokienez (Trento, 1546). Sinodoek arlo horretan emandako araudiak aipatzen dira.

Azkenik, Nafarroako Erresuman, Juana de Albret bertako erreginak zuzenduriko Erre forma kalbindarraren kultura eta hizkuntza politika azaltzen da, garai bereziki emankor eta esperantzatsu zen hartan (1560-1572). Urte horietan, hain zuzen, Sinodo erreformatuen agindupeko lantaldeak sortzea bideratu zuen ekimen ofizialak. Artikulu amaieran taldean eta haren obrar; hurbiltzen lagunduko duten giltz-hitz batzuk ematen dira.

Con ocasión de la edición interconfesional de Elizen arteko Biblia (1994), se hace una exposición del contexto cultural —europeo y local— en que se llevó a cabo la primera versión euskérica del Nuevo Testamento (Testamentu Berria, 1571). El artículo tiene por objeto facilitar la comprensión contextual del nacimiento de la prosa euskérica en el seno de la Reforma.

Se ofrece una panorámica general europea del programa de publicaciones religiosas de aquel movimiento, con atención especial a las versiones bíblicas que contribuyeron a poner los fundamentos de algunas literaturas nacionales (siglo XVI) y la alfabetización de la población del Continente (siglos XVI-XVIII).

Se recuerda la presencia de escritos de la Reforma en el País Vasco —continental y peninsular— al menos desde 1523. Se describe el cuidado puesto por la Inquisición de Logroño, en cuya jurisdicción se incluía el País Vasco, en el control de dichas publicaciones, que en ocasiones aparecieron en euskera.

La Reforma Católica marcó también su propia política religiosa y lingüística, en la predicación y catequesis, pero también en orden a la liturgia y las versiones bíblicas (Trento, 1546). Se hace referencia a la normativa sinodal al respecto,

Por último, se expone la política cultural y lingüística de la Reforma calvinista del Reino de Navarra, liderada por su reina Juana de Albret, en un período especialmente fecundo y prometedor (1560-1572). Fue en estos años cuando la iniciativa oficial posibilitó la formación de un equipo de trabajo a las órdenes de los Sinodos reformados. El artículo se cierra con unas claves que faciliten una mejor aproximación al grupo y su obra.

A l'occasion de l'édition interconfessionnelle de l'Elizen arteko Biblia (1994), une exposition du contexte culturel —européen et local— a été faite pour la réalisation de la première version en basque du Nouveau Testament (Testamentu Berria, 1571). L'article a pour objet de faciliter la compréhension contextuelle de la naissance de la prose basque au sein de la Réforme.

Il est présenté une vue d'ensemble européenne du programme des publications religieuses de ce mouvement en insistant tout spécialement sur les versions bibliques qui ont contribué à servir de base à quelques littératures nationales (XVI<sup>ème</sup> siècle) et à l'alphabétisation de la population du Continent (XVII-XVIII<sup>èmes</sup> siècles).

La présence des écrits de la Réforme au Pays Basque —continental et péninsulaire— est rappelée au moins depuis 1523. Il est décrit le soin utilisé par l'Inquisition de Logroño, dont la juridiction incluait le Pays Basque, dans le contrôle des dites publications qui parfois apparaissaient en Basque.

La Réforme Catholique a laissé aussi une empreinte sur sa propre politique religieuse et linguistique, dans la prédication et la catéchèse, mais aussi dans le cadre de la liturgie et des versions bibliques (Trento, 1546). Il est fait allusion à la réglementation synodale concernée.

Finalement, la politique culturelle et linguistique de la Réforme calviniste du Royaume de Navarre —dirigée par sa Reine Jeanne d'Albret durant une période très féconde et prometteuse (1560-1572)— se trouve exposé dans cette étude. C'est pendant ces années que l'initiative officielle a permis la formation d'une équipe de travail aux ordres des Synodes réformés. L'article s'achève par des points de repère qui facilitent une meilleure approximation au groupe et à son ouvrage.

*Elizen arteko Biblia-ren itzultzaileei, eta hamazazpi urtetan zehar  
egiteko guztiaren batasun- eta iraupen-ardatz izan den  
Dionisio Amundarain-i. mirespenez.*

Ondoko orrialdeok iturri ezberdinetako iradokizunez joan dira mamitzen: badute zer bait euskal literaturaren kanpo-historiatik, berdin XVI. mendeko Eliza kristauen historia liskartsu eta bizitik, orobat itzulpenen historia sozio-erlijiosotik. Baina oraintsu, gutxitan egokitu ohi diren gertakari kultural horietako batek ekarri nau honetara.

1994ko uda sartu-berrian *Elizen arteko Biblia-ren* aurkezpenean egoteko parada izan du<sup>1</sup>. Berorren inguruan eman litezkeen albisteak beste nonbaiterako utzi<sup>2</sup>, baina egokiera galdu gabe, euskal letretako Bibli itzulpenen lehen kapituluari (Leizarragari dagokionari, alegia) begiratu historiko bat eman nahiko genioke hemen.

Testamentu Berriaren lehen itzulpena (1571)<sup>3</sup> hainbat ahalegin sozial eta komentzimenduren emaitza izan zen, eta inola ere ez idazle isolatu baten kasketaldia; aitzitik, bai ordea ingurumendu europar zabal jakin bati esker jaiotako landarea. Leizarraga bera ere ohartuta zegoen horretaz, zera idatzi baitzuen: “...consideratzen nuenean, nola gure demborán-ere anhitz personage iaquinsurik Testamentu berriaren translationean emplegatu izan den, hambat Latinez, Francesaz, nola anhitz berce lengoage abrafez eta praticatuz...”. Hain zuzen, lan honetan, testuinguru zabal horretaz eman nahi da zenbait albiste.

---

1 (1994): *Elizen arteko Biblia*. Lazkao/Donostia: Bibli Elkarte Batuak/Euskal Elizbarrutiak. (ik. VI. orrialdean argitaratzaileen xehetasun guztiak). Honela banatzen da edukina: a) Atarikoak: I-XXIII or. b) Itun Zaharra: 1.478 or. c) Itun Berria eta Osagarriak: 514 or.; 9 mapa eta plano, koloretan.— Osagarrien artean, 415-514. or., zera sartu da: “Bibli hiztegia”, “Aurkibide analitikoa”, “Euskalkien arteko hiztegia”, “Taula kronologikoa” eta “Leku-izenen aurkibidea [mapak]”.— Eusko Jauriaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Akitaniako Lurralde Kontseiluaren dirulaguntzak jaso ditu argitalpen honek. Edizioa: 15.000 ale (jada 7.100koa, eta gainerrakoa agian udazkenean). Salneurria: 1.854 pta.

2 INTXAUSTI, J. (1994): “Euskarazko Biblien historiaz: *Elizen arteko Biblia-ren* argitalpena dela-eta”, in: *Euskera*. XXXIX-1, 1994, 299-314.

3 *Jesus Christ gure launaren Testamentu Berria*. Rochellan. Pierre Hautin, Imprimiçale. 1571, “Hautin” hori sarrienik “Haultin” bezala agertu izan da: ik. VINSON, J. (1983 [1891]): *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Bilbao: Caja de Ahorros Vizcaína. 37. or., eta Lebaud-David-en obra (ik. 221. oh.). Ondoren egingo diren testu-aipeak Euskaltzaindiaren edizioaren arabera jasoko dira: LEIZARRAGA, IOANNES (1990): *Jesus Christ Gure launaren Testamentu Berria. Othoitza ecclesiasticoen forma. Catechisme. Kalendrea. ABC edo Christinoen instructione*. Bilbo: Euskaltzaindia.

4 Leizarraga 1990: 252.

Etzeparerengan, Leizarragarengan baino nabariagoak diren ideia estilo zaharrak ukatu gabe, mirestekoa da alde askotatik gure poesia idatzi eta prosaren bi gurasook beren garaiekin izan zuten kidetasun eta sintonia; esan bezala, leizarragatarrengan batez ere. Azken hauen garaikotasuna XVI. mendeko Europaren mugimendu erlijioso-kulturalaren —mota guztietako eliz Erreformen— banean begiratu eta ulertzekoa da, inondik ere. Eta ikuspide horretatik lihoakkeen ulerpen historiko egokiago baterako lagungarri gisa bildu dira ondorengo albistekak.

## 1. BERANDU, BAINA ARTEAN GARAIZ (1563)

Lanaren handia eta gure herriaren txikia gogoan izanik, Bibliaren euskal itzultzaileak ez dira gutxi ere izan hemen<sup>5</sup>; baina guztien aurretik lehenak —berritasunez eta garaikotasun historikoz— Leizarraga eta leizarragatarrak ditugu (1563-1571).

Bidezkoa zenez, Joanes Leizarraga, gure bigarren euskal idazle ezaguna, pausa-une behartua izan da beti hizkuntzaren eta literaturaren historietan; bibliografoek ere gogoz bilatu izan dituzte haren urrats eta aztarnak (Vinson-ek aipu nabarmenagoa merezi du, kasu honetan)<sup>6</sup>, eta ikastun protestante euskalariak ere maitekiro begiratu izan dute leizarragatarren obra (Dodgson, Schuchardt)<sup>7</sup>.

Idazleaz albiste oso mugatuak baldin baditugu ere —edo agian horregatixe— Leizarragarekiko jakin-mina gure egunak arte luzatu zaigu, eta zuzpertsu ere egin da (Akesolo, Aresti, Kintana; Hordago-ren eta Euskaltzaindiaren edizioak: 1979, 1990)<sup>8</sup>.

Euskal Herriaren Kristautze osoa beranduenera ekarrita ere (VIII-X. m.)<sup>9</sup>, hipotesirik herzienean bostehunen bat urte igaro ziren Kristautze hartatik Biblia euskaldunentzat itzuli zen arte (1571). Berehala ikusiko dugunez, ez da hau atzerapen nabarmenegia Mendebaldean, beranduago ere Eliza erromatarrak kristautu zituen beste herrietako hizkuntzen historiarekin alderatzen bada, behintzat. Besterik izango zitzatekeen, ordea, gure historia Ekialdeko kristauen zenbait herritan gertatutakoaren parean jarri izan behar balitz<sup>10</sup>.

Argigarri izan liteke guretzat Ekialde-Mendebalde bien artean, Erteuropan, egokitutako kasu bat, kasik gure Durangoko heretikoen garaikidea, Bohemiakoa alegia. Han, Pragatik Hus-ek (1369-1415) hedatu zuen erlijio-iraultzak zerikusi hurbila izan zuen mugimendu txekiari abertzalearekin ezezik, baita hizkuntzekiko orduko jarrera sozial eta hizkuntz politikarekin. Hus-ek berak

- 
- 5 VINSON, J. (1983): *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*. Bilbao: C. de Ahorros Vizcaina. (1891ko edizioaren faksimila). Ik. "Table méthodique" delakoan "Bible et Nouveau-Testament" (454-455). XX. mendekoaz, ostera: TORREALDAI NABEA, J.M. (1993): *XX. Mendeko euskal liburuen katalogoa* (1900-1992). Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 189-193 (035 epigrafea). Beste zentzu batean Bonaparteren araitaloenak ere badute interesik franko gure hizkuntza idatziaren historian (eta dialektologian); Bibliari eman izan zaion lekua eza-gutzeko Bonaparte-ren adibidea: GONZALEZ ECHEGARAY, C.; ARANA MARTIJA, J.A. (1989): *Catálogo de los manuscritos reunidos por el Príncipe Luis-Luciano Bonaparte*. Bilbo: Euskaltzaindia. Eta Printzeak berak inprimatuen artean: BONAPARTE, L.-L. (1991): *Opera Omnia Vasconice*. Bilbo: Euskaltzaindia (4 lib.). Bonaparteren eskuizkribuetan geratu zitzaizkigun lanen argitalpenak, in.: PAGOLA, R.M.; GONZALEZ, S.; IRIBAR, I.; IRIBAR, J.J.; MALLONA, A. (1992): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. (Bizkaiera, 3. lib.). PAGOLA, R.M.; BEOLA, A.; IRIBAR, I.; IRIBAR, J.J. (1993): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. (Gipuzkera, 6. lib.). Batez ere hemen daude bilduta Uriarte-ren lanak.
- 6 Honek bere bibliografi saio handian, orrialde luzeak eskaini zizkion Leizarraga-ren obrari: Vinson 1983: I, 5-46; II, 521-529.
- 7 Dodgson-ena ik.: BILBAO, J. (1970-1986): *Eusko-Bibliografía*. s.v. "Dodgson: Leizarragana", eta "Schuchardt, H.". Azken honenak: bereziki, Leizarraga 1990: 9-240.
- 8 Leizarraga-ren historia osatuz joateko, Akesolo-rena zinez interesgarria izan da: AKESOLO, L. (1989): *Idazlan guztiak*. Zornotza: Karmel. I, 208-216; II, 823-851.
- 9 AZKARATE, A. (1987): "Kristatasunaren sarrera Euskal Herrian: eztabaida historiografikoa zertan den", in: (1987): *Euskal Herriaren Historiaz*. Bilbo: EHU. III, 25-50.
- 10 Ikus, adibidez, sirieraren historia: SELIS, Cl. (1988): *Les Syriens orthodoxes et catholiques*. Edition Brepols. 17-21.

ekin zion lehenengo hizkuntzaren corpus-a egokitzeari (lexikoa garbituz, ortografia berrituz). Ondoren, predikari, jakitun eta gidari politiko txekiar andana gida-postuetara iristean ondorio bizkorak izan zituen hizkuntzaren bizitzan, Bentzeslao Waren erretaldian txekiera hizkuntza ofizial bilakatu baitzen (1363-1419): udal liburuak txekieraz idazten hasi ziren, eskutizketa ofiziala ere halaxe egin zen, eta areago oraindik, garaiko zientzia nagusia ere —Teologia— txekiartu egin zen. Jakitunen eztabaidak, eskola eta plazetan herri hizkuntzan entzun ahal izan ziren, ondorioz<sup>11</sup>.

Gurean bestelakorik dugu. XV.ean euskal literatura herritarrak idatzita utzi zizkigun lanen ondano<sup>12</sup>, Durango-ko heretikoeak (1442-1445) berek ere ez zuten arrastorik utzi gure prosagintzan edo kantategian<sup>13</sup>.

Euskarak "literatura" hain eliztarra izan arren, erlijioak ez du bete izan gurean Erteuropako adibide horretan dugun antzeko normalkuntza-zereginik, ez orokorrean, ez eta propiokiago osorik eliz bizitzan (Teologian, eta eliz erakundearen barne-bizitza osoan: prediku eta herritarren hezkuntzaz gain, irakaskuntza jasoagoan edo ikerkuntza teologikoan, Zuzenbidean eta abarretan). Esandakoa ñabartzeko, menderik emankorrenera etorrira, 1900-1992. etako euskarazko liburuen katalogoan ikus liteke eliz liburuen produkzio-tamaina eta gai-hedadura: 1.228 liburu (% 9,5)<sup>14</sup>.

Mendez mende gure eliz liburugintzak (euskal Literaturako parte on bat berori izan da, jakina denez) izan dituen mugak aipatzean, Leizarragak buruturiko lanaren erraldoia ageri zaigu, gaur egun ere, eta haren garaiko testuinguruan zer esanik ez. Horixe da orain ezagutzera eman nahi duguna.

## 2. XVI. MENDEKO ELIZ ARGITALPENEN TESTUINGURU EUROPARRA

Europako eta Hexagonoko testuinguru sozio-kultural jakin batean sortutako obra izan zen leizarragatarrena<sup>15</sup>. Eta baieztapen honek gisa berean balio du XVI. mendeko Europan mariora zetorren Erreforma Protestanteaz eta berorren barruan indarrean jarri zen proiektu kultural-biblikoaz,

Gure kasuan, Erreforma hark Eliza Erreformatu kalbindarra esan nahi zuen, gainera. Protestantismoaren mugimenduan, bigarren olatualdi handia Kalbinismoarena izan zen Europan, Luteranismoa erakundeztatu ahala (gogora, 1555eko Augsburg-eko Bakea), lurralde eta herri berrietarako hedapen-indarrik azkarrena erakutsi zuena. Egokiera historiko horren barnean lehortu ziren, mendearen bigarren partean, Frantziako Erlijio-Gerrak (1562-1598), eta Joana Albretekoaren erlijio-politika bete-betean suertatu zen testuinguru horren barruan; baina giro hartan argitalpen inprimatuek izan zuten zeregina azpimarratu nahiko nuke.

### 2.1. Moldiztegia eta Bibliaren argitalpenak (1447-1520)

Moldiztegia sortzean, lehenengo inprimakiaren ondoren (egutegi bat: 1447), Guttenberg-en lan handia Bibliaren inprimaketa izan zen, horrela geroko liburugintzari bide berriak urratuz

11 MACEK, J.; MANDROU, R. (1984): *Histoire de la Bohême des origines à 1918*. Paris: Fayard. 119.

12 J.K. Gerra-ren lanak gogoan ditugula, aipa dezadan guztiontzat begira-erraza den: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Literatura*. Donostia: Auñamendi Argitaletaria. I, 36-55.

13 OLAIZOLA, J.M. (1993): *Historia del Protestantismo en el País Vasco*. Pamplona: Pamiela. 81-87. or.

14 Torrealda 1993: 161-209 eta XVI.

15 Hexagonoko Protestantismoaren testuinguru zabala ezagutzeko, tradizio bereko historiari baten bi sintesi-obra gogora litezke hemen: LEONARD, E.G. (1958): "La Réforme et la naissance de l'Europe moderne", in: *Histoire Universelle*. Paris: Gallimard. III, 3-114. LEONARD, E.G. (1967): *Historia general del Protestantismo*. Barcelona: Edicions 62. (4 liburuki). Bi kapitulu hurbilenak azpimarratuko ditut: "Calvino, fundador de una civilización" (I, 263-314) eta "La adaptación francesa del calvinismo" (II, 77-139), biak ere eranskin bibliografiko aberatsez hornituak.

(42 lerrotako Biblia deitua, latinezkoa noski). 1455ean, Bibliaren 185 ale inprimatuta zeuden kalean (150 paperean, 35 pergaminon). Cehendabizi, *Vulgata* latinoaren edizioak egin ziren, ugari, 1475-1517. urteetan; Parisen bakarrik, hamasei argitaraldi izan zituen, eta Mendebaldeko herrietan 1520a aurretik gutxienez *Vulgata*-ren 156 edizio oso egin ziren.

Pauso horren ondotik, premiek eskatu ahala, Bibliaren herri-itzulpenetarako ere irekita geratu zen bidea. Erdi Aroaren azken mendeetan Bibliaren eskea gero eta biziagoa izan zen kristauen artean: nagusi zen Teologi Eskola (Ockham eta beraren jarraitzaileena) ez zen atzera geratu eske horren oinarri teorikoak aldarrikatzean. Bestalde, kristau herriaren erreformagogoak Bibliaren argitalpenak biziki sustatu zituen XV.aren bigarren partean<sup>16</sup>.

Garaiko askoren pentsamoldean, elkarrekin lotuta ikusi ziren Elizaren erreforma jatorra eta berori ahalbideratzeko fededun xumeek behar zuten Bibliaren ezagumendu hurbilagoa. Hortaz, Biblia, herri-hizkuntzetan ere eman beharra zegoen herritarrentzat. Erreforma-aurreko hamarkadetan ere komentzimendu aski hedatuta zen hori<sup>17</sup>. Zoritxarrez, Trento-k ez zuen pauso erabakiorrik emango (1546)<sup>18</sup>, baina bai Kontrarreformak, itzulpen herritarrek oztopatuz<sup>19</sup>. (Puntu honek mereziko lukeen gogoeta, azalpen honen haria ez eteteko, oharretan uzten diogu irakurleari)<sup>20</sup>.

Alemanian bakarrik, 1466-1520. urteetan Bibliaren 22 itzulpen egin ziren, eta beste herrietan ez zen falta izan: frantsesez, 23; italieraz, 12; Espainian gogora ditzagun bi: Zaragoza 1485, Toledo 1512. Horrela, 1520an Biblia alemanaren 6.600en bat ale zebiltzan irakurle- en eskuetan, 13.000ren bat beste hizkuntzetan, eta Testamentu Berriak, oster, 100.000ren bat ale<sup>21</sup>.

16 Bibliaren inguruko katolikoaren pentsamolde pastoralak eta politika ezberdinak: RAPP, F. (1973): *La Iglesia y la vida religiosa de Occidente a fines de la Edad Media*. Barcelona: Labor. 264. Erreformak aurreko mendeetan izan zituen oinarriak: 265-269, eta okamismoaren Bibli zaletasunaz: 274.

17 Trento inguruan, lehenago eta ondoren, katolikoek erakutsitako jarrerak —itzulpenen aldeko eta aurka-koak— behin baino gehiagotan aztertu ziren: adibidez, A. CATARINOK zera idatzi zuen (autore domingotar hau Luter-en beraren zuzeneko arerioa izan zen, bere *Apologia* sonatuarekin): *An expediat scripturas in maternas linguas tranferri*. 1522.

18 JEDIN, H. (1972b): *Historia del Concilio de Trento*. Pamplona: Eudenasia II, 109: "La cuestión vivamente debatida de las versiones a lenguas vulgares queda igualmente indecisa", *Vulgatari buruzko Trentoko Dekretuan alegia*. Kontzilioko Gurasoen artean zein jarrera kontrajarriak zeuden jakiteko, ik. Jedin 1972b: II, 83, 86-88 (Pacheco eta Madruzzo kardinalen artean), 90-91 (Mottola eta Bertano Gotzainen artean), 99-100 (berriz ere Pacheco eta Madruzzo/Bertano-ren artean). Trentoko aztertzeako iturriak: Jedin 1972: II. 99-100. 34. oh.. Ikerlan interesgarriak: REVILLA, M. (1930): "La controversia sobre las versiones vernáculas de la Biblia en el Concilio de Trento", in: *Religión y Cultura*. X, 1930, 88-104. CAVALLERA, F (1945): "La Bible en langue vulgaire au Concile de Trente", in: (1945): *Mélanges E. Podechard*. [Paris?]. 37-56.

19 Katolikoaren artean itzulpenek debekua ere izan zituzten: Frantziar Sens-eko Sinodoan (1528) eta Pariseko Parlamentuan (1543); Espainian, oster, Errege Katolikoengandik zetorren hori (Jedin 1972b: II, 82). Espainiaz berri zabalagorik nahi duenak ikus: ENCISO, J. (1944): "Prohibiciones españolas de las versiones bíblicas en romance antes del Tridentino", in: *Estudios Bíblicos*. III, 1944, 523-544: Titulua gorabehera, Trentokoaz, berorren aurreko eta ondokoaz ari da idazlana, eta bereziki interesgarria gertatzen zaigu hau bi arrazoi- rengatik: a) Iruñetik erreforma katolikoa diozesian gidatu zuen Pacheco gotzainaren pentsamendua aski zabal-ki eta testu hautatuekin azaldu zuen autoreak artikuluan. Jedin-ek, laburrago, modu aski gordinean labur- tu du Pacheco-ren jarrera: "Fuera de la *Vulgata*, todas las traducciones [Bibliarenak, alegia], incluso los Setenta, debían ser prohibidas" (Jedin 1972b: II, 86, , 99-100). b) Espainiako Koroaren eta bertako Elizaren politika bibliko-linguistikoa euskal Hegoaldean, bederen, erabat moztu zuen itzulpen haietatik etor zitekeen euskararen literatur garapena. Politika kontrarreformista horren iturriak Pacheco-ren antzeko pentsamolde sozio-eliztarrean bilatu behar dira, nahiz eta aziparratzeak den, noski, ez zela izan hori (1546an bederen) beste hainbat katolikoren mentalitate.

20 Ik. gainera beherago "Euskara Erreforma Katolikoan" deritzon pasartea.

21 DELUMEAU, J. (1967): *La Reforma*. Barcelona: Ed. Labor. 20-26. or. Ik. Jedin 1972b: II, 82. Ik. eskuerago izan litekeen beste hau: HAAG, H.; AUSEJO, S. de (19715): *Diccionario de la Biblia*. Barcelona: Herder. 1996-2025. Bibliaren itzulpen herritarren esanahi historiko kulturalaz: FEBVRE, L. (1970): *Erasmus, la contra-reforma y el espíritu moderno*. Barcelona: Ed. Martínez Roca. 54-71.

## 2.2. Luter-en itzulpen-bultzada (1522-1546)

Hastapen horiek gorabehera, itzulpen biblikoen goraldirik garaiena hurrengo hamarkadetakoa izan zen, mugimendu protestante erreformatzailearen eskutik joan zena<sup>22</sup>. Ahalegin emankor hau protestanteen pentsamendu teologikoaren eta hedapen-beharraren ondorio zuzena gertatu zen. Izan ere, Erreforma protestantea Fedearen eta Hitzaren Erreforma da batez ere: sines-molde berriak zioenez, fede-bidezko salbamendu pertsonala Hitzaren hausnarrean egiaztatzen behar zuen fededunak<sup>23</sup>.

Horretarako eta horregatik, Europa eleaniztuna izaki, itzulpenen bidez hizkera ulergarri batean (herritarrean, alegia) eraman behar zen Biblia fededunen buru-bihotzetara, eta ez latin ulertezinaz, Eliza katolikoaren praxi orokorrenak nahiago zuen gisan. Itzulpenen aldeko erabaki honek ondorio erlijiosoak baino haragokoak ere izango zituen Europaren parte on batentzat<sup>24</sup>.

Urtebetean egin zuen Luter-ek Testamentu Berriaren itzulpena (1522: aurreko abendutik hurrengo abendura), eta bi urtetan hamabost bat edizio izan zituen berorrek. Ondoko hamabi urteetan egin zuen Testamentu Zaharraren itzulpena, 1534an osorik argitaratuz: hil aurretik itzulpenaren 377 edizio oso eta partezko ezagutu zituen Luter-ek<sup>25</sup>.

Lehen itzulpenak egin zituenetik aurrera, bere heriotzeraino (1546), testua zuzendu eta zuzendu jardun zuen Luter-ek beti, etengabe, eta lankide askoren laguntza bilatu zuen eginkizun horretarako (filologoena barne), ez baitzuen sekula onartu Bibli itzulpena lagun bakar baten obra izan zitekeenik; baina, horrela ere, Luter-en beraren jeinua zen han nagusi, haren hizkuntz intuizioa, haren testuen ulerpena, haren hizkera gihartsu eta bizia<sup>26</sup>.

Alemanian Luter-en Bibliak izan zuen arrakasta ez zen Erreformen kasu isolatua izan; beste hainbat herrialdetakoa ere gogoratzekoa da.

## 2.3. Bibliaren itzulpenak Europan zehar

Luter-ek bere itzulpena osorik burutu baino lehenago ere (1534), herrialde anitzetan erreformatzaileek —eta sarritan agintariak ere— Jainkoaren Hitzaren herriratzeari ekin zioten, Erreforma osoaren lehen pauso bezala. Itzulpen-egitasmoa luma ongi zorroztauek eraman ohi zuten aurrera, eta behin baino gehiagotan obra maisuak burutu ziren.

Lanok luma nagusi batetik etorri ohi ziren maiz, baina bakar-lana zirenean ere, talde-lanean burutu ohi ziren azkenik, eta Luter bera geroko askorentzat izan zen eredu, baina ez beti eta bakarra. Gerora ikusiko zenez, Wittenberg-etik bezalatsu Genevatik, Erreformatzaile handiek eskola literarioak ezezik, eskola-lantegiak sortu zituzten zeregin hauetarako.

22 Bibliaren itzulpen herritarrei buruz: BATAILLON, M. (1966): *Erasmus y España*. México: FCE. 44-46, 192-193, 359-360, 549-557, 597-598, 704-705, 710-711, 717-718, 814-815.

23 Ik. Léonard 1967: I, 24. Ezingo da hemen ahoz ahoz alboratu, humanistek Bibliarekiko izan zituzten hurbiltasunak, eta Erasmo guztien aurretik (*Novum Testamentum*, 1516). Luter bera ere, humanista hauen etsenpluari eta metodoei jarraiki trebatu zen bere itzulpen alemanerako (Delumeau 1967: 23).

24 Gaurko ikerlanek Protestantismoaren alde honi aitortzen dioten munta, ondoko liburuen azpitituluan ikus liteke: FURET, F.; OZOUF, J. (1977): *Lire et écrire. L'alphabétisation des français, de Calvin à Jules Ferry*. Paris: Minuit.

25 Léonard 1967: I, 82 eta 400 (estatistikak eta bibliografia).

26 RUPP, E.G. (1970): "Lutero y la Reforma en Alemania hasta 1529", in: ELTON, G. R. (ed.) (1970): *Historia del Mundo Moderno. II. La Reforma (1520-1559)*. Barcelona: Ed. R. Sopena. 57. Iserlohek ere azpimarratu du Luter-ek inguruan bildu zuen lankidetzaren hau: "Para la traducción del Antiguo Testamento, que se prolongó hasta 1534, se ayudó Lutero de especialistas filólogos. Hay que verla, pues, más como trabajo de colaboración" (ik. ISERLOH, E. (1972): "La Reforma protestante", in: JEDIN, H. (1972a): *Manual de Historia de la Iglesia*. Barcelona: Herder. V, 155-156.

Herri ezberdinetan gertatutakoa laburtzeko, esan dezagun, lehenengo Testamentu Berriri heldu ohi zitzaiola, eta handik urte batzuetara burutu ohi zela Zaharra: Petri-k eman zuen suedieraz Biblia (TB 1526, osorik 1541) Estienne-k frantsesez (1528), Pedersen-ek danieraz (TB 1529, osorik 1550), Gottskálksson-ek islanderaz (TB 1540, osorik 1584), Agricola-k suomieraz (TB 1543; eta mende bat geroago Biblia osoa: 1642), etab.<sup>27</sup>.

Arestian iradoki dugunez, historia hau Elizen historian ezezik, Europako kultura eta literatura nazionalen ere gogoan gorde da<sup>28</sup>. Monarkia handietan, Estatu txikiagoetan eta Estaturik gabeko herrietan nahiz hiztunگو txikarretan antzeko gertakariak aurkitzen ditugu, beti ere kasu bakoitzean inguru politiko-linguistiko propioarekin, noski.

## — Ingalaterra

Ingalaterran, adibidez, beste herri erreformatu gehienetan baino atzera-aurrera gehiago ezagutu zuen itzulpengintza horrek. Bibliaren lehen itzulpen ingelesa ez zen batere luzatu, alemanaren urte beretsuetan burutu zen (TB: Worms, 1525; W. Tyndale/M. Coverdale, 1535-1539)<sup>29</sup>, hala ere, Erregea ez zen fido Luter-en inguruetatik etor zitezkeen berrikeriez, eta al dabideak bere eskuetatik gidatu nahi izan zituen Koroak.

Bibliaren irakurketa herritar libreari eta berorrek ekar zitzakeen ondorio politiko-instituzionalei begira zenbait erabaki mugagarri hartu zuen Enrike VIII.ak, 1535eko ediziotik zortzi urteren burura: Bibliaren irakurketa klase sozial jakinetara mugatu nahi izan zuen (1543)<sup>30</sup>.

Haize librearj, ordea, ez zegoen aterik jartzetik: politika erlijiosoaren alderteei erantzunez, hurrengo hamarkadetan behin eta berriz edizio ofizialak egin behar izan zituen Eliza Anglikanoak, eta azkenik arrakastarik handienarekin gainera (*Bishops' Bible*, 1568)<sup>31</sup>. Belaunaldi luze bat pasatuta gero, erret itzulpen/edizio bikain batek koroatu zuen Bibliaren bilaketa-epaald hau (*King James Version*, 1611)<sup>32</sup>.

Biblia ingeles hauen oihartzuna ez zen momentukoa bakarrik izan, zinez iraunkorra, sozialki hedatua eta hiztunگوaren hizkuntz tradizioan erro luze-zabalak izan zituena baizik<sup>33</sup>.

## — Danimarka

Danimarkako erreinuan, Bjurström-ek gogoratu digunez, Erreformak mundu latinoarekiko etena ekarri zuen arren, hizkuntzaren barne-garapen oparora sustatu zuen, Kristian III.aren Bi-

27 Itzulpen haiek literatura nazionalen izan zuten lekua ezagutzeko, ik. autore ezberdinen lanetan: QUENE-AU. R. (ed.) (1978): *Histoire des Littératures*. Paris: Gallimard. II, 322-323 (islandera). 343-344 (galesa). 951-952 eta 982 (daniera), 1007 (suediera), 1060 (suomiera), 1296 (erromantzea), 1361 (poloniera), 1408 (lusaziera), 1468 (kroaziera), 1415 (hungariera), 1473 (esloveniera), 1526-1517 (estoniera), 1541 (letoniera).

28 Luter-en Bibliaz eta hizkuntza alemanaz, adibidez, zera idatzi da: "una obra maestra cuya amplísima distribución no sólo fortaleció la causa protestante sino que también dio a Alemania un lenguaje literario" (FRIEDERICH, W.P. (1973): *Historia de la literatura alemana*. Buenos Aires: Editorial Sudamericana. 51. or.).

29 Elton 1970: II, 161.

30 WOODWARD, E.L. (1982): *Historia de Inglaterra*. Madrid: Alianza Editorial. 99: "las consecuencias de esa lectura [libre de la Biblia por los laicos] pronto alarmaron al rey. En 1543 ordenó que sólo la nobleza, la clase media campesina y los comerciantes podían leer un texto tan peligroso".

31 McCURUM, R.; CRAN, W.; McNEIL, R. (1992): *The Story of English*. London: Faber and Faber. 112: "In retrospect, these were also turning-points in the story of the English language. Several Bibles now began to appear in English. Between 1535 and 1568 no less than five major versions were published —Matthew's, Taverner's, Cranmer's (the «Great Bible»), the Geneva, and the Bishops Bible. All were immediate bestsellers, as Bibles are to this day, and were probably the most widely read texts of the sixteenth century, with an enormous influence on the spread of English".

32 McCrum et al. 1992: 110-116, 149-150.

33 MAISONNEUVE, A. (1978): "Littérature anglaise", in: Queneau 1978: II, 374: "Les travaux de Tyndale, de Coverdale et, pour une moindre part, ceux de leurs successeurs (Bibles de Genève et de Reims) servirent de base à la «Version autorisée» de 1611. [...] Son action sur le peuple tout entier fut immense".



bliarekin: “irakurtzen zekitenek oso gutxi izaten segi bazuten ere, Bibliaren izpiritu eta estiloan blai eginda geratu zen betiriko literatura eskandinaviarra”, idatzi da.

Bibliaren hizkera berria, are hurbilagoa gertatu zen, gainera, berori ahozko herri-literaturatik ondoren Pedersen berak sorturiko eliz kantategiarekin. Arrasto honetan etorriko zen garaiko danieraren obra maisua: hurrengo mendean Tomas Kingo (1634-1703) handiari zor zaion obra liriko-erlijiosoa<sup>34</sup>.

Bitartean, iparralde haietan, suediera bere kultur garapen berriari ekin ezinik ageri zen<sup>35</sup>, norvegiera danieraren itzalpean itotzear zegoen<sup>36</sup> baina suomierak bere geroko Pizkundeari oinarriak jarri zizkion orduan.

#### — Finlandia

Danimarkakoa bezain adierazgarria izan zen Finlandian Erreformaren kultur politika. Biztanlez ez zen batere handia Finlandia: 1571n, 300.000 mila bizilagun zituen. Politikoki Suediari lotuta zegoen, Erreinu berean: prozesu luze baten ondorioz sortutako egoera horri berdintasun-status-a 1362an emana zitzaion, Finlandia gainerako probintzia suediarrekin parekatuz.

Baina Finlandiak egoera soziolinguistiko nahasia zuen: Landa-herriak (gehienak) suomierazko, ala (gutxiago) suedierazko barruti elebakarretan banatuta zeuden; hirietan, berriz, bi hizkuntzak ulertzen ziren. Suediera zen Erreinu (Finlandia barne) guztien hizkuntza ofiziala, eta premiak eskatzen zuenean, finlandiarrek ere bazekiten berori erabiltzen, batez ere administrazioan parte hartuz joan ziren neurrian. Tokiko hizkuntza —suomiera— zen elizgizon, epaile eta Estatuko funtzionarien artan ere<sup>37</sup>.

Egoera soziolinguistiko horretatik, kristau-komunitate mugatu horren zerbitzurako egin ziren Bibliaren (1548an argitara emana) eta bestelako eliz testuen itzulpen eta sorketa. Mikael Agricola-k, «suomierazko literaturaren aitak» (c. 1510-1557), Alemanian Erreformaren gurasoekin ikasi ondoren, Turku-ko eskola zuzendu zuen, eta gerora Leizarragak bezalatsu, *Abeze* bat (1542) eta *Otoitzen Liburua* (Luter-en *Betbüchleinen* itzulpena, 1544) prestatu eta inprimarazi zituen.

Administrazioan hizkuntza ofizial bakartzat suediera jarraitu arren, suomierak eliz bidetik izan zuen bere lehenengo garapen literarioa —oletian eta prosan—, azkenik Biblia osoa Eri-riren ekimenez argitara eman zen arte (1642: Axularren obra agertu aurreko urtean, hain zuzen)<sup>38</sup>.

Suomieraren kideko kasurik ez da falta Mendebaldeko herri-hizkuntza txikietan edo Estatu propiorik gabekoetan: Suitzako erromantxearen historian<sup>39</sup> edo Britainia Haundiko galeserarenean, adibidez<sup>40</sup>. Notario eta magistratu batek, J.B. Tütschet de Samédan-ek, eman zuen argitara Testamentu Berriaren itzulpen erromantxea, Basilean 1560an: “cette oeuvre, aussi décisive pour le romanche que la Bible de Luther le sera pour l’allemand”, idatzi du hizkuntza haren literaturaz Bezzola historilariak<sup>41</sup>.

34 C. G. Bjurström, in: Queneau 1978: 951-952.

35 JEANNIN, P. (1970): *El noroeste y norte de Europa en los siglos XVII y XVIII*. Barcelona: Labor. 58.

36 JEANNIN, P. (1965): *Histoire des Pays Scandinaves*. Paris: PUF. 25.

37 JUVA, M. (1973): “Mil años de historia finlandesa”, in: VARII (1973): *Finlandia, ayer y hoy* Madrid: Espasa-Calpe. 54-56.

38 PERRET, J.-L. (1936): *Littérature de Finlande*. Paris: Ed. du Sagittaire. 7 eta 31-32.

39 Erromantxearen hizkuntz definizioaz eta arazo historikoez. ik. labor: CAMPROUX. Ch. (1979): *Les langues romanes*. Paris: PUF. 92-93. TAGLIAVINI, C. (1981): *Orígenes de las lenguas neolatinas*. México: FCE. 508-520. Eta arazoan sintesi bibliografikoa: GARGALLO GIL, J.E. (1989): *Guía de Lingüística Románica*. Barcelona: PPU. 214-216. Gaur egungo egoeraz, autore ezberdinen eskutik: GIORDAN, H. (1992): *Les minorités en Europe*. Paris: Editions Kimé. 173 (M. Rossellini), 200-202, 207-208 (J.-J. Furer).

40 Galeserak mundu ingelesarekiko duen lekuaz: McCrum et al. 1992: 48-55.

41 R.R. Bezzola, in: Queneau 1978: 1296.

## — Gales

XVI. mendeko galeserak abiapuntu zailetik hasita ekin behar izan zion lanari: Enrike VIII.ak ezarritako *Act of Union of England and Wales-ek* (1535), espreski erakutsitako hizkuntz pentsamolde kolonialistaz gain, hizkuntz politika zapaltzailea jarri zuen indarrean.

Aurrerantzean, Epaitegiek, erret ofiziale eta funtzionarioek ingelesez bete beharko zituzten beren zereginak, eta Erregeren aginte-lurraldeetan gales-hiztunek ez zuten sarbiderik izango, hizkuntza ingelesa erabiliz ez bazen<sup>42</sup>.

Legezko egoera horri neurriren batean aurre-egiten<sup>43</sup> Erreformak lagundu zuen: Parla-mentuaren erabakiz, 1563tik aurrera, Biblia eta Liturgia galeserara itzuli ahal izan ziren. Hizkuntzarekiko obra nagusiak erbeste politikoan lantzen ziren bitartean (G. Robert, D. Rhys), Galesen Bibliaren itzulpen osoa burutu zen (W. Salesbury-k: TB, 1567; W. Morgan-ek, osoa: 1588) eta ondoko hamarkadetan osatu zuen Eliza Anglikano ofizialak gainerako liburu ofizia- len bilduma.

Ondoko mendean, Iraultza ingelesaren urteetan (1642-1651) puritanoek hartu zioten Eli- za ofizialari beren txanda Gales-en, 159 predikari bidali, eta 6.000 Biblia eta 3.000 TB jendea- ren eskuetan galeseraz zabalduz<sup>44</sup>.

Hizkuntzaren batasuna egin eta literatur hizkera finkatuta geratu zen, guztiaren ondo- rior<sup>45</sup>. Eliza Anglikanoarekin lehian, metodista, baptista eta abarren igande-eskoletan Biblia bilakatu zen herriarentzat irakurtzen eta idazten ikasteko tresna erabili<sup>46</sup>.

Hori da, edo antzekoa, Erreforma nagusitu zen lurralde edo Estatuetan haren iraulketa kulturalaren historia. Baina zer esan, Euskal Herrian bezala, Erreformari Kontrarreforma katoli- koa garaile gertatu zitzaion beste herriez? Gurearekin kasurik hurbilenetakoa, agian, Eslove- nia-rena da, ñabardura argigarri batzuk tartean direla.

## — Eslovenia

Esloveniak, Habsburgotar katolikoen menpean zegoela bizi izan zituen Erreforma eta Kontrarreforma, biak; eta gero, XVIII-XIX.etan, bere pizkunde nazionala, hizkuntzarena barne.

Bostehun urte lehenagotik zetozen hizkuntzaren testu zaharrek lortu ez zutena, Protes- tantismoak erdietsi zuen Eslovenian: Literatura nazional bati oinarriak ematea. Dalmatin-en Bi- bliak (Wittenberg, 1584) molde literarioak ezetik, dialektoez gaineko batasuna ere eman zion hizkuntza idatzari<sup>47</sup>.

Protestanteen hizkuntz ereduaren proposamen horren aurrean Kontrarreformarekin za- lantzarik sortu arren, c. 1750.etik aurrera, berriz ere, hura bilakatu zen baliozko batasun-eredu bakarra eta erabakiorra, 1750-1850.etakoa idazle handiek eta bigarrenez Bibliaren itzulpen be- rriak (1784-1808) aberastu eta bideratu zutena<sup>48</sup>.

42 Aktaren testua: PETSCHEN, S. (1990): *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: Documentos (1492-1989)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra. 112-112. Testuinguru historikoa: MORGAN, K. O. (ed.) (1988): *The Oxford History of Britain*. Oxford: University Press. 289: "English language became the fashionable tongue, and Welsh native arts went into decline".

43 Egoeraren arriskuak eta kalteak ongi laburtu ditu Th. Parry-k: Queneau 1978: 342-343.

44 MARTIN, H.-J. (1988): *Histoire et pouvoirs de l'écrit* Paris: Perrin. 317.

45 Parry-k, in: Queneau 1978: 343-344.

46 VARIL (1986): "El País de Gal-les", in: (1986): *Altres Nacions*. Barcelona: Ciemen. V, 1986, 15.

47 BAÑERES, J. (1989): "Aproximació a la història social de la codificació de l'eslovè", in: *Revista de Llengua i Dret*, 1989, 12, z., 188: "Els protestants intentaven escriure de tal manera que arribessin al més gran nombre de població, però sense que es perdés la claredat i l'exactitud del missatge salvífic".

48 Bañeres 1989: 188-190, 190-191, 191-192

Euskal Herrikoarekin alderatu behar bagenu, Kontrarreformak ekarri zuen etena gogoratu-ko genuke: Leizarragak ez zuen berehala segidarik izan gure euskalgintzan. Han bezala etena izan genuen hemen ere; baina gurean hizkuntz eredu berri batetik ekin zitzaion lanari (Sarako Eskola). Han, ordea, etenaldiaren ondoren, katolikoek ere azkenik Erreformak landutako bata-sun-bide eta ereduari —berrituta, noski— heldu zioten XVIII-XIX.etao Pizkunde abertzalean.

#### 2.4. Liturgia, otoitzak, kateximak

Mundu ofizialetatik nahiz ertzetako heterodoxietatik egin ziren politiketan edo misio-egit-asmotan ez zen, ordea, mundu idatzi inprimatua Bibliarekin amaitzen (ikusi dugu bidenabar zerbaít). Irakurgai bibliko hauen ondoan otoitz-liburu liturgikoak eta kantategiak dauzkagu, gainera, eta kateximak.

Aipatzekoak dira Luter-en horrelako lanak: Liturgian, Meza *alemana* (1526)<sup>49</sup> eta kantate-gia (24 gorazarre edo *lieder*; 1527koa da bere sonatu hura: *Eine feste Burg ist unser Gott*)<sup>50</sup>. «Kyrie»-a izan ezik, hitzez eta doinuaz alemana izango zen dena Erreformatzailearen boronda-tez *Meza aleman* hartan.

Fede-heziketarako Katexima handia eta txikia idatzi zituen Luter-ek (1529)<sup>51</sup>. Garaiko ohitura eta beharrei erantzunez, latinaren eta alemanaren artean egin behar izaten zuen Erre-formaren gurasoak bere hautua<sup>52</sup>; baina, aipatu kasuetan, Bibliaren itzulpenarekin egindako aukera indarberrituta atera zen, beti ere alemanaren faboretan.

Ingalaterrara jauzi eginez, gogora dezagun zera: han ere, ingeles-hiztunen irakur-ohitura pertsonal eta sozialari gorputz ematen sekulako eragina izan zuen, Bibliarekin batera, otoitz-li-buru ofizialak: *The Book of Common Prayer*, 1559<sup>53</sup>. Hau da, hain zuzen, mundu ingeles-hiztu-nean bere pisu sozio-kulturalagatik Bibliaren paretsum jarri litekeen kasik liburu bakarra<sup>54</sup>.

#### 2.5. Erreforma eta Europaren alfabetatzea

Protestantismoaren lehen gurasoen pentsamendu eta ahaleginak (Luter, Kalbin, Knox, Elisabet I.a) ezekik, ondoko belaunaldienak ere zerikusi erabakiorra izan zuen Europaren alfa-betatzearekin; horretan, XIX. mendeko estatistiketatik behatuz neurtu izan da bi Erreforma erli-joso kontrajarrien emaitza kultural ezberdina: Europako Iparralde protestantean, alfabetatu gabeak % 10 (Suedia) edo % 20 (Prusia edo Eskozia) ziren bitartean, Hegoaldean % 40-45 (Austria-Hungaria) edo % 80 (Italia) izan zitezkeen 1850aren inguruan<sup>55</sup>.

Alde nabarmen horien arrazoi nagusiena Elizen bi tradizio kultural ezberdinetan ikusten da gaur egun, Liburu Sainduak irakurri eta Liturgia herri hizkuntzan eta zuzenean ulertuz osp-atu beharrak eskolak sortzera bultzatu baitzuten mugimendu erreformatua. Luter-ek lehen ordutik izan zuen gogoan premia hau (1522: TBren hitzaurrean)<sup>56</sup>, eta Melanchton-ek ezinez-

49 Eliz bizitzaren antolamendu berriaz, ik.: Léonard 1967: I, 108-109. ATKINSON, J. (1971): *Lutero y el nacimiento del Protestantismo*. Madrid: Alianza Ed. 295-298.

50 Kanta hau Protestantismoaren gorazarre-kantu bilakatu zen, ia berrehun hizkuntzatarra itzulia. Léonard 1967: I, 339.

51 Léonard 1967: I, 117-120. Biak ere —atzerrietako hedapenaren mesedetan, noski— berehala izan ziren lati-nera itzuliak. Atkinson 1971: 303-305.

52 Atkinson 1971: 297. Lehen urteetako hizkuntz bitasunak (astegunetako mezak latinez, igandeetakoak ale-manez), bateratuz joango dira Luter-engan ere ondoko urteetan.

53 Maisonneuve 1968, in Queneau 1978: 374: "Seul le *Livre de la prière en commun* (1549-1552) compilé sous la direction de Cranmer, conseiller de Henri VIII et archevêque de Cantorbéry, eut une influence du même ordre [que la Bible]".

54 Iserloh, in: Jedin 1972a: 473.

55 Martin 1988: 318.

56 Atkinson 1971: 300.

kotzat jo zuen eskolarik gabeko Eliza (1524). Alemania handi-atzeratuan «eskola-iraultza» hura mantxo joan baldin bazen ere, zenbait kasutan garapen bizkorragoa ezagutu zen: Strasbourg-en milaren bat haur eskolatu ziren aldiberean, 20.000 lagun bakarrik zuen hirian.

Ingalaterran, dakigunez, garaiko edizioetan eskola-liburu eta gramatikekin batera, kateximak izan ohi ziren ale-kopuru handienetakoak. Ez da ahanzi behar Ingalaterrako “eskola-iraultza” ildo honetatik egin zela, 1560-1640. hamarkadetan: 35 eskolatatik (1480: *petty schools* eta *grammar schools*) 410 eskolara (1660) igo zen aztertutako hamar konterritan<sup>57</sup>.

Eskozian John Knox-en jarraitzaileek, aginteaz jabetu orduko, lehen disziplina-liburuan irakaskuntza orokorra proposatzen zen Eliza Presbiteriarren eginkizun handietako bat bezala: “il s’agissait de rendre les masses capables de lire et de comprendre la Bible”<sup>58</sup>.

Prozesu orokor horretan otoitz-liburuek pisu kultural zabala izan zuten: “Biblia ingelesa eta ingelesez zegoen otoitz-liburua, moldiztegiari esker irakurtzen zekiten guztien eskuetara iritsi ziren Tudortarren aroan (1485-1603), eta entzuteko lain bakarrik ziren askorenganaino”<sup>59</sup>.

Biblia eta Liturgiarekin batera berehala aipatu dugun propaganda-argitalpenak eta eskola-liburuxkak ere ekarri beharra dago hona. Irla Britainiarretan, Kontinentean eta Ameriketan ere horrek guztiak baliabide berriak eman zizkion herritarren alfabetazeari<sup>60</sup>. Eta Euskal Herria ez zegoen batere urrun testuinguru horretatik: adibidez, 1571 ko euskal ABCak, Lyongo *Abezea edo haurrentzako kristau instrukzioe-n* (1559) aurki zezakeen bere eredu kalbindarra<sup>61</sup>.

## 2.6. Euskal Herriaren inguruetan

Europako ideia-irakinaldi hark, Euskal Herria ere ukitu zuen, edo hobeki esan: hona ere hurbiltzen ari ziren beste herrietako asmo eta ezinegonak. Gurera, hain zuzen, iturri jakin batetik zetozen haiek, Frantzian zehar Kalbin-en Genevatik. Komeni zaigu, ba, Erreforma-gidari horren arlo honetako burubideak gertuagotik begiratzea.

Genevako erreformatzaileak bere oinarritzko obra teologikoa (*Institutio religionis christianae*, 1536 eta 1539), orduan obra teologiko jasoetan maiz ohi zen eran, latinez eman zuen argitara lehenik, baina baita laster frantsesera itzuli ere (*Institution de la religion chrestienne*, 1541)<sup>62</sup>. Itzulpena eta bulgarizazioa, elkarrekin besotik zihozazen lanbideak ziren, humanisten artean bezala erreformatzaileetan ere<sup>63</sup>.

57 Martin 1988: 228 eta 311-313. or.

58 Martin 1988: 317.

59 MACAULAY TREVELYAN, G. (1984<sup>a</sup>): *Historia social de Inglaterra*. México: F.C.E. 98

60 Martin 1988: 317.

61 Léonard 1967: I, 446, 31. oh.

62 Léonard 1967: I, 265, 275, 297. or. Testu neo-latino humanisten itzulpen herritarren esanahi historikoar: MILLET, O. (1992): *Calvin et la dynamique de la Parole. Etude de rhétorique réformée*. Paris: Libr. H. Champion Editeur. 768-770.

63 GILMONT, J.-F. (ed.) (1990): *La Réforme et le livre. L'Europe de l'imprimé (1517-v.1570)*. Paris: Cerf: “Les protestants pour leur part exploitent à fond l'imprimerie pour la catéchèse, pour la liturgie et pour le chant religieux. Disposer d'une officine typographique est désormais indispensable pour chaque Eglise protestante” (497.498. or.). Pastoraliza protestantearen jarrera teologiko-kulturala erakusteko balio du aipua. Gilmont-en liburuaren barnean hurbiltasunagatik interesgarriagoak ditugu: HIGMAN, F.M.: “Le domaine français. 1520-1562”, 105-154; GORDON KINDER, A.: “Le livre et les idées réformées en Espagne”, 301-326. Azkenik, gai honetan ere —beste askotan bezala— oinarritzko kontsulta-lekua da: BATAILLON, M. (1966): *Erasmus y España. Estudios sobre la historia espiritual del siglo XVI*. México: Fondo de Cultura Económica (aurkibidean s.v. “Indices de libros prohibidos” eta “Prohibiciones de libros”). Millet 1992: 771 (oharretan bibliografia). BURIDANT, Cl. (1984): “La littérature militante au XVI<sup>e</sup> siècle, sa vulgarisation et sa diffusion. Contribution à l'histoire de la traduction”, in: *Mélanges de langue et de littérature médiévales offerts à A Planche*. Paris. 83-96.

Kalbin-en eliz antolamenduaren eta hedapen-politikaren ardatz jakina izango da geroztik itzulpenak sustatu eta tokian tokiko hizkuntzak ere aintzakotzat hartuz lan egitea<sup>64</sup>. Geneva-k ohartuki egin zuen, aipatu dugun horretan ere, latinetik frantseserako jauzi linguistiko eta politikoa (beti ere 1530-1560.etan Europan hizkuntzen erabilpenez lehian zebiltzan joeren artean oreka propioa bilatuz), eta lurralde kalbindar irabazi-berrietako hizkuntz politikak handik jaso zituen bultzada eta zentzua, leizarragatarren kasua barne<sup>65</sup>.

Frantziako higanaut kalbindarren artean, lehen urteetan R. Estienne-ren edizioak erabili ziren: 41 argitalpen, 37 urtetan. Hauetarik, Biblia oso bat eta TBren bi edizio, frantsesez<sup>66</sup>. Baina Olivetan-en Bibliaren itzulpen frantsesa izan zen kalbindarrentzat argitalpen ofiziala (1535)<sup>67</sup>. Alemanian edo Ingalaterran egin zenaren antzera, behin eta berriz zuzenduta, Kalbin bera ere tarteko zela (1545. 1560), 1588an "azken" onarpen osoa izan zuen arte<sup>68</sup>. Agian, Olivetan-en hartatik, Kalbin-en oharrez aberastuta egindako 1561eko nahiz 1563ko edizioa izan zen Leizarragak ondoan izan zuen begiratuena, Vulgata-ren ondoan<sup>69</sup>.

Kalbindarren artean ere kantategiak (Salmutegiak, elizkizunetarako kanta-bildumak...) berebiziko garrantzia izan zuen kristau-elkartean Hitza guztien baitara errazkiago eramateko, talde-oroimen bizi eta bateratzailea sortzeko. Hau dena goiz arautu zen Genevan (1537)<sup>70</sup>. Lutertarren artean bezala, kalbindarretan ere tradizio finko eta bateratua sortu zen honetan, inoiz C. Marot (1496-1544) bezalako olerkari handien lumetatik zetozen itzulpen bibliko nahiz letra orijinalekin eta doinu herritar(tu) atseginekin<sup>71</sup>.

Katexima kalbindarrak Luter-enean izan zuen aintzindari ona, eta Institutioen deitua argitara aurretik ere, prest egon ziren fede-sineskizunen dotrinak, handia eta laster txikiagoa ere (1541)<sup>72</sup>. 1541eko Ordenantzetan irakas-sistema osoa arautu zen, lehen mailako eskolak aiantzi gabe<sup>73</sup>, eta horren osagarria izan zen elizako dotrinaren antolamenduari zegokiona: gurasoak behartuta zeuden igande-eguerdietako dotrinara seme-alaba txikiak bidaltzera<sup>74</sup>.

Oro har, Protestanteen eta prezeskiago kalbindarren mezuaren hedapen-indarra argitalpen handiek baino orri gutxitako liburuxka tikiak lagundu zuten gizarte-klase ezberdinetan,

64 Hala ere, izango luke interesik kalbinismoaren historian frantsesak sarritan izan zuen lehentasun nagusia beharko liratekeen nabardurekin ulertzeak: Frantziako Monarkiarekin lurraldeetan, noski, baina baita kalbinismo frantsesaren diaspora europarrean ere. Bego, oraingoz, arazoa bere horretan.

65 Millet 1992: 782-785.

66 Léonard 1967: I, 277-278, 446.

67 CASALIS, G.; ROUSSEL, B. (ed.) (1987): *Olivétan, Traducteur de la Bible. Actes du Colloque Olivétan, Noyon, mai 1985* Paris: Cerf.

68 MANGENOT, E. (1912): *Dictionnaire de la Bible*. Paris: Letouzey et Ané. s.v. "Françaises (Versions) de la Bible", 2364: "Les pasteurs et les professeurs de Genève publièrent, en 1588, une revision de la Bible d'Olivetan, qu'ils avaient préparée en corps et à laquelle ils donnèrent une approbation officielle. Le principal reviseur était Bertram, (...); ses collaborateurs se nommaient Th. de Bèze, Antoine de la Faye, Jacquemot, Rotan et Simon Goulart. (...), L'oeuvre de la "Vénérable Compagnie" de Genève eut une grande vogue parmi les protestants français". LORTSCH, D. (1910): *Histoire de la Bible en France*. Paris.

69 RUIZ ARZALLUZ, I. (1991): "El modelo griego de Leizarraga: Luna quimera filológica?", in: VARII (1991): *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. I, 115.: "Con los datos que tenemos, yo tengo el convencimiento de que en el escritorio de Leizarraga había sólo una versión francesa y, todo lo más, una Vulgata; tengo la certeza, sin embargo, de que no podemos postular, al menos de momento, un modelo griego".

70 Léonard 1967: I, 292-293. Bibliografía: 338-339.

71 Léonard 1967: I, 281-282, 446, 35-36. oh.

72 Léonard 1967: I, 293, 449, 56. oh.; eta bereziki: 370 (bibliografía), 450, 78. oh. GUELFUCCI, P. (1945): "L'oeuvre catéchétique de Calvin", in: *Révue de Théologie*. Aix, 1945, 10-31.

73 Léonard 1967: I, 300. HAHN, F. (1957): *Die evangelische Unterweisung in den Schulen des 16. Jht*. Heidelberg.

74 Léonard 1967: I, 303.

ideien isilpeko zabalkunderako aproposenak berauek gertatu zirelako, inondik ere: horrela erein ziren eskolatuen artean, gaztelu eta jauregietan, Frantziako bide guztietan zehar, mandazain eta merkatarien ardurapean, botikari, mediku edo nekazari eta harginen etxeetaraino Erreformaren testu llaburrak, otoitz-bildumatxoak, mota guztietako panfletoak<sup>75</sup>.

Erreforma-ideien zabalkundeak eskatzen zuen sare sozialean eta gizarteko konplizitateetan ikusi behar da —Erreformatzaile handien idazkien balioan baino— arrakastaran arrazoia, baita Frantzian ere<sup>76</sup>.

Nafarroako Sinodo kalbindarrak eta Leizarragaren taldeak alde aurretik prest zeukan, ba, pastoral-lanerako eredu teologikoa ezetik eredu soziala ere. Testamentua *Berria*, *Katexima* edo *ABCa*, erabakita eta esperientzia helduarekin zetorren egitarau baten barruan ikusi eta ulertu behar dira. Ikusi dugun inguru horretan, ez da, gainera, sobera harritzekoa, Leizarraga bera irakasle ere bihurtzea, nahiz eta gure hizkuntzaren historia atzeratuagotik guztiz modernoa gertatu burubide hura. Izan ere, azken buruan —Genevako Ordenantzek ziotenez (1541)— herritarrek Hitzaz ezagutzeko premiazkoa baitzuten “hizkuntzen eta giza zientzien ikastetxea”<sup>77</sup>.

Testuinguru horretan, Hitzaren zabalkunde eta hezkuntza bibliko-liturgikoa (katekesian bezala eskolan) prediku mintzatuekin bezala (edo gehiago, kasuen arabera) baliabide inprimatuen bidez egin behar izan ziren, XVI.ean eta gero ere. Ez da, ba, sobera harritzekoa, Euskal Herrira hainbat inprimaki protestante iristea.

### 3. IDAZKI ERREFORMATUAK EUSKAL HERRIAN (1523-1563)

Arrazoi askorengatik, Euskal Herria ez zen Europako uholde protestante idatzitik alboratu: izan ere ezinezkoa zen hori, estatuarte egonik eta itsasora merkatal portuak zabaldua zituela, Iparraldean bezala Hegoaldean.

Inprimaki protestanteen presentzia goiztarra izan zen Hegoalde euskaldunean: 1523an. Pasaia portutik sartu ziren lehenengoak<sup>78</sup>. Ez da pentsatu behar, beraz, Leizarragaren lanak, 1571n, alde horretatik erabateko berritasuna zuenik.

Untzi batean iritsi ziren lehenengo inprimakiak, Gipuzkoako portu horretara<sup>79</sup>; baina beraiek aurkitu eta zer ziren ezagutzean, erre egin zituzten gehienak; izan zen, ordea, beretzat hartu zuenik ere, eta gorde, harik eta Inkisizioko mutilek “eskomikupean eta bestelako zigor larrien pean” biltzen ahalegindu ziren arte.

Eraso orokorrago baten barnean zetozen liburuak. Bi urte lehenago iritsi ziren lehen liburu luterarrak Penintsulara, eta orduan eman zen halako liburuak biltzeko lehen ebazpen orokorra (Tordesillas, 1521). Ordutik 1535era arte behin eta berriz zehaztu zen beste zenbait erabakirekin kontrol-politika bera; lege-sorkuntzan barealdi baten ondoren, 1550-1560.etan bigarren emanaldi gogorragoa ezagutu zen Monarkia Katolikoan, Valdés inkisidorearen agintepean<sup>80</sup>.

75 HAUSER, H. (1909): *Etudes sur la Reforme française* Paris. Léonard 1967: 278-279.

76 FEBVRE, L. (1971): “Una cuestión mal planteada: Los orígenes de la Reforma francesa y el problema de las causas de la Reforma”, in: Febvre 1971: 13-83.

77 Léonard 1967: I, 300.

78 LONGHURST, J.E. (1968): “Luteranismo en Pasajes”, in: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, n. 2, 1968, 21-29.

79 Gorenak Nafarroako inkisidoreei: “Agora avernos seydo informados que los del Passaje tomaron una nao muy rica a los franceses, la qual dize que ellos avian tomado a unos valencianos viniendo de Flandes y que en ella avia un arca llena de libros de las obras del dicho Lúter y de sus secuaces y que los dichos libros se repartieron por algunos bachilleres, clérigos y otras personas de la tierra” (Longhurst 1968: 25).

80 REGUERA, I. (1984): *La Inquisición española en el País Vasco. (El tribunal de Calahorra, 1513-1570)*. San Sebastián: Ed. Txertoa. 125-128. Obra honek eta ondoren aipatzen ditugun lanek eguneratu dute Hegoal-

1558-1559. etatik aurrera kontrol-irizpideak zorrozkiago finkatzean, Kontrarreformarako politika erabakiagoa gauzatuko da. 1560-1570. etako arrazoiak edo arriskuak ezagunak ditugu: Felipe II.aren Kontrarreforma gaude, Flandes-en lehertu da gerra politiko-erlijiosoa, Frantzia eta Biarno-Nafarroetan ere bai, kalbinoismoaren hedapen-urte onen egunetan gara<sup>81</sup>. Eta Euskal Herria —Ipar-Hegoaldeetan—, jaiotzear zegoen Europa kalbindarretik Espainiara-ko atari bilakatu zen.

### 3.1. Euskal Hegoaldean, Protestantismoarekin erne

Egoki izango da hemen mende-erdi hartako (1521-1571) gertabidea edo hainbat gertakari gogoratuz hastea.

Euskal Herriaren mugaldetasuna eta horrek zituen garrantzi eta arriskuak —itsas portuetan eta Pirinioetako mugan— behin eta berriz azpimarratu ziren hamarkada haietan: leiho eta ate ireki horiek zaindu beharra zegoen, Erreformaren ideiei hesiak jartzeko. Asmo horrekin emandako ebazpen eta arauak ugariak dira (1539, 1551, 1558, 1560, 1563, 1565, 1568)<sup>82</sup>. Mugaren beldurra nabaria zen 1570.aren inguruan<sup>83</sup>.

— Beldur sozio-politikoak: Inkisizioaren lanak

Horri guztiari aurre egiteko Kalagurri-Logroño-ko Inkisizioak arreta handiz hartu zuen muga haietatik sar zitezkeen liburu eta inprimaki heretikoen kontrola ongi eratu eta gauzatzeari. Batik bat I. Reguera-k landu du historia hau, eta funtsean beronenetik bilduko ditugu datuak.

Inkisizioaren Auzitegietan Protestantismoaren aurka saiatuena Kalagurriko hau izan zen Penintsulan, eta etengabe jardun zuen 1539tik aurrera<sup>84</sup>. Eta Auzitegi honen barnean, 1560. etako hamarkadan, iharduerarik garrantzikoena, hain zuzen, heresiari bideak moztea izan zen<sup>85</sup>.

Saiatu zen Inkisizioa lutertar eta kalbindarren kontrako kontrolak ongi antolatzen: portu eta hirietan tokian tokiko bere komisariak zituen<sup>86</sup> eta urteoro edo inkisidoreek bisitaldi bat egin ohi zuten, baita Euskal Herrira ere<sup>87</sup>.

Ezagunak ditugu ikustaldi sonatu batzuetako ibilaldiak ere: Ayala-ren 1923koa, Valdeolivas-en 1538-1539. etakoa, Ybarra-ren 1546-1947. etakoa eta Moral-en 1567-1968. etakoa<sup>88</sup>. Kostaldeko portuak eta barnealdeko hiri eta herriak errenkan ageri dira inkisidoreen berriemateetan: Bilbo, Bermeo, Lekeitio, Mutriku, Deba, Donostia, Pasaia, Errenteria, Oiartzun, Hondarribia, edo Durango, Elorrio, Elgeta, Eibar, Elgoibar, Arrasate, Eskoriatza, Oñati, Bergara, Azpeitia, Segura, Ordizia, Tolosa, Hernani...

dean argitalpen protestanteek izan zuten presentziaren historia: BOMBIN PEREZ, A. (1988): "La Inquisición en el País Vasco. Procesos y delitos (1570-1580)" eta: FERNANDEZ LUMBIERRES, B. (1988): "Basques et Castillans face au tribunal inquisitorial de Logroño: 1580-1635", eta REGUERA, I. (1988): "La Inquisición en los puertos vascos y sus mecanismos de control": in: (1988): *II. Euskal Mundu-Biltzarra - II Congreso Mundial Vasco [1987]. Euskal Herriaren historiari buruzko biltzarra - Congreso de Historia de Euskal Herria. T. III: Ekonomia, gizarte, eta kultura Antzinako Erregimenean/Economía, sociedad y cultura durante el Antiguo Régimen*. Donostia: Txertoa. Hurrenez hurren, 437-448, 465-482 eta 531-540,

81 Léonard 1967: II, 5.

82 Reguera 1984: 131, 138, 139, 141, 144, 145, 151, 152, 163, 165. Fernández Lumbierres 1988: 467-468.

83 Reguera 1984: 167.

84 Reguera 1984: 143, 167.

85 Reguera 1984: 160.

86 Reguera 1988: 533

87 Reguera 1988: 536.

88 Reguera 1984: 133, 144, 167, 148-150, 163-166.

Inkiszioaren bisitaldi eta lan-prozedurak sarritan ez ziren herrietako agintariak<sup>89</sup> eta herriarrek ongi ikusiak. Eta ezaguna da hainbat kexu, batez ere merkatarri eta bestelako kalte-tuen artean. Inkisidoreen burubideak kritikatzan ziren: portuetako merkataritzari ezartzen zizkioten eragozpenengatik (Jaurerria, 1547; Bilbo, 1540, 1580; Donostia, 1539, 1564), diruzaleegi jokatzan zutelako, edo agintekeriak ari zirelako<sup>90</sup>. Muga zaintzea ona izan zitekeen, baina kontrolak egoskortu ahala, harremanetarako zeuden portu eta bideetan ito egin zitekeen nahitaezkoa zen atzerriarrekiko harremana; inoiz, estatuarteko gatazkak sortzeraino<sup>91</sup>.

Euskal Herria mugalde izanik, aspaldidaniko ohitura zen hemen Gaztelako Erreinuaren eta bertako ekonomiaren joan-etorrietan atzerriarrekiko jendetasuna, eta hauen bertoko presentzia. Kanpotarrek in zitutzen harreman ugariengatik, bereziki susmagarriak gertatzen zitzaizkien inkisidoreei Donostia eta Bilbo: “Advierta vs, que en San Sebastián no hay cincuenta casas sin mezcladez de extranjeros, que es gran mal”, Moral inkisidore bisitariak zioenez (1567), izan ere maiz, inkisidore berari Bilbon gertatu zitzaionez, heresiagatik auzipetu gehienak atzerriarrek baitziren<sup>92</sup>.

1538-1558.etan Kalagurriko Auzitegiak epaitutako 946 Jagunetarik protestante garbitzat eman zituenak 62 izan ziren bakarrik (gehienak atzerriarrek); hiru izan ziren heriotzera emanak, *erlajatuak*<sup>93</sup>. 1565eko Auto-an irtendako hamaika “baketuak” (*reconciliados*: heresiatik ernegatu, eta sanbenitatuak) hamar ere erbestekoak ziren, gehienak Iruñea, Donostia eta Bilbon hartuak<sup>94</sup>.

Flandestik, Frantziatik nahiz beste Europako herrietatik etor zitezkeen predikari, liburu edo heretiko saiatiuen albisteak aldeztu aurretik jakiteko bazituen Inkiszioak bere berriemaile eta espioiak. Erregek berak abisatu zuen inoiz Bruselatik (1558), baina enbaxadari, funtzionario eta merkatarri espainolak ziren batez ere abisuen emaile<sup>95</sup>; batzuetan, bidal-puntutik irten aurretik ere (Pauetik, adibidez) ezagutu ahal izan zen liburuak nola iritsiko ziren. Albisteak emateko berd in balio zezaketen enbaxadariak ere: Paris eta Londres-tik jakin zen inoiz, Baionan zehar sartu ohi ziren liburuaren albistea (1565-1567). Inkiszioaren atxilotuek ere behin baino gehiagotan eman zuten atzerrian prestatzen ziren eraso proselitisten berri<sup>96</sup>.

Proselitismo horien abiapuntu maizenak ezagunak ziren: Marnes edo Lesear Akitanian, Flandes eta Londres; urrunago eta hari luzeagoekin, Geneva; baina portuak ziren abiapunturik erosoena: La Rochelle, Bordele edo Donibane-Lohizune<sup>97</sup>. Portutik porturako joan-etorrietan merkatarri protestanteen izen jakinak ere aipatzen ziren (La Rochelle-ko Joakin Giradeo, adibidez, 1564ean). Batez ere liburutegiak eta inportatzaileak zaindu behar izaten ziren<sup>98</sup>. 1560.etakoz azken urteetan, “el peligro de que la herejía protestante invadiera la península desde Francia era un temor generalizado”, idatzi du Reguerak<sup>99</sup>.

Beldur hau izango da, esate baterako, kostaldean bezala Arrasaten bertan ere, frantzikotarren komentu berriak eraikitzeko aipatu izan zen arrazoi nagusietako bat: protestanteen

89 Reguera 1984: 91-113.

90 Reguera 1984: 118-124, 141, 146-147, 156, 163-166; 1988: 533-535.

91 Reguera 1984: 156-158; 1988: 534.

92 Reguera 1984: 163, 165.

93 Reguera 1984: 168, 170.

94 Reguera 1984: 174.

95 Reguera 1988: 538.

96 Reguera 1984: 130, 160, 162.

97 Reguera 1984: 139.

98 Reguera 1984: 161, 140.

99 Reguera 1984: 167.



uholde-arriskuari aurre egin beharra, alegia<sup>100</sup>. Ez da beti erraza jakiten beldurraren arrazoiak zenbateraino erantzuten zioten zinezko egoera bati, eta noraino ziren haiek beldur interesatuak<sup>101</sup>. Aita Rekarte azkoitiarrak honela zioen, 1569an:

...advirtiendo y considerando que concurren de muchas naciones a ella [Donostiara] flamencos, ingleses, alemanes y franceses, en cuyas tierras hay muchos herejes y luteranos, errores y sectas malas y que a la causa podrían dañar y nacer por estar tan confines con Francia, a donde hay tantos errores y herejes que sienten mal de nuestra Santa Fé Católica y en razón de ello hay urgente y manifiesta necesidad de que en la dicha villa, por estar como está en frontera y por ocurrir como ocurren a ella tantas y tan diferentes gentes contaminadas en la fé haya teólogos y letrados y predicadores doctos [...] <sup>102</sup>.

Oro har, erreparo horiek, gaur egungo historiografiaren argitan badakigu zinezko beldur zabaldu bati erantzuten ziotela. Dena den, horiek ziren mundu ofizialek —zibilak eta eliztarrak (agian herritar askok ez hainbeste)— agerian zerabiltzaten arrazoi-bideak, nahiz eta, maila isilagoetan, inoiz esamesak patxada hobez ere hartu ziren, Moral inkisidoreak idatzitakoaren arabera (1567): “Me alarma que en La Rochela los luteranos dicen que tienen ministros en San Sebastián y que predicán cada noche, pero yo no lo puedo descubrir”<sup>103</sup>.

1565etik 1570era, “luterar” deituek (=protestanteak, alegia) leku handiagoa izango dute Kalagurriko Epaitegiak kondenatutakoen artean; 37 izan ziren “luterarrak”, arestian aipatu ditugun 1538-1558.etan baino askoz gehiago: 1565eko Auto sonatuan 25 lagun<sup>104</sup>. Handik aitzina gogorki heldu zitzaion arazoari: Logroñoeko Inkisizioak 267 lagun epaitu zituen 1570-1574. urteetan, eta ondoren, 1585-1589.etan jo zuten sabaia zifra horiek, 405 lagunekin. 1570-1580.etan ikusirik delituetako % 9,10 izan ziren “luterkeriaz” salatuak<sup>105</sup>. Ondoko urteetan ikusten denaren arabera (1580-1635) uste liteke hauek gehienak Logroñoeko Epaitegiarenean Euskal Herrikoak zirela: azken aipatu urteetako hiru laurden halakoa baitzen, eta hauek guztietako % 95 atzerritarrak, gainera<sup>106</sup>.

“Luterarren” izenpean, sarritan kalbindarrak ere izendatu ohi ziren urte haietan, nahiz eta, dakigunez, frantsesak ia denak kalbindarrak ziren. 1565eko Auto-arr, bere burua “huguenao” bezala aitortu zuen 17 urtetako mutil frantses bat daukagu, ekaitzak Bermeora ekarri eta liburuxka bategatik atxilotua; baita Biarnoko Artzain eta emakume bat ere, eta beste lau frantses. 1565ean bederatziz heretikoetarik sei atzerritarrak ziren, baina 1567-1569etan bederatziz “luterarretako” bat bakarra zen kanpotarra; Donostiako bi merkatarik zeuden tartean<sup>107</sup>.

Frantziako higanauten beldurra oso garaiz aurki liteke inkisidoreen artean, baita Joana Albretekoaren Erreformatik pauso erabakiak eman aurretik ere (1562)<sup>108</sup>. Nafarroako Errefor-

100 Donostiaz: INZAGARAY, R. de (1951): *Historia eclesiástica de San Sebastián*. San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa. 198-200. TELLECHEA, J.I. (1972): *La Reforma Tridentina en San Sebastián*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal. 45, 164-165 (Gotzainaren 1568ko ikustaldian). Ertlijioosen komentuez: LASA, J.I. (1982): *Los franciscanos en San Sebastián 11512-1606*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal. 47, 112-113. URIBE, A. : *La Provincia franciscana de Cantabria*. II: V. kap. (argitaratzean).

101 Uribe, argitaragabea, II, 188.

102 Lasa 1982: 112. Arrazoi-modu berberak erabiliko dira Arrasateko frantziskotarren komentua eraikitzean (1581eko Buldan).

103 Reguera 1984: 164.

104 Reguera 1984: 172-173.

105 Bombín 1988: 441, 447.

106 Fernández Lumbierres 1988: 480-481.

107 Reguera 1984: 174-175.

108 Reguera 1984: 159.

mak asaldatuta zeuzkan Inkisizioaren funtzionarioak: 1568-1569etan Otsagiko komisariak Erreforma haren albistek, eta beldurrak, adierazten zizkion Epaitegiari. Erasotetik ihesi zetozen katolikoaren artean ere bazen, Kalagurriko fiskalak zioenez, kalbindarrik: berriz ere, Aragoatik Hondarribirainoko mugak zaindu beharra zegoen<sup>109</sup>.

#### — Liburuaren pertsegizioan

Esan dugu, lehen liburu protestanteak sartu orduko (1523), heldu ziotela Koroak eta Inkisizioak haien sarrerari kontrola eta debekua ezartzeari: “en aquella provincia de Guipúzcoa hay algunos de los dichos libros por donde parece no se puso la diligencia que convenía”. Badakigu ondoko hilabeteetan ongi zuzendu zituela Ayala inkisidoreak aurreko zabarkeriak<sup>110</sup>. 1530ean, gainera, izenburu faltsuz eta sasi-autorepean zetozenak ere biltzeko agindua eman zien Gorenak Aragoa-Nafarroetako inkisidoreei, beste zereginen artean liburudendak miaztekoa eman zitzaien<sup>111</sup>.

Liburuak ale-banaka etor zitezkeen, edo liburu-merkatarien arteko karga handitan: 1559ko ekainaren 18an Frantziako Lyondik hiru bat mila liburu iritsi ziren Donostiako portura, Alcalá-ra eramateko; 1560an, hiri beretik hamar liburu-pardel Valladolid-erako<sup>112</sup>. Hauen artean, edo bestelako jenerotan nahasian ezkutaturik, edozein motatako liburu debekatu sartu ohi zen<sup>113</sup>. Liburu heretikoak hemen sartzeko plangintza subertsibo baten ideia zabalduta zegoen agintarien artean.

Liburu kalbindar batzuen berririk ere badugu. 1561ean Erreginaren idazkariak kutxa bat liburu ekarri zuen, eta haien artean, Kalagurri ikusi zenez, batzuk heretikoak ziren (besteak beste, Kalbin-en Katexima)<sup>114</sup>. Frantziatik enbaxadaria zioenez, Genevan prestatuta zegoen Espainian liburu heretikoak sartzeko plangintza<sup>115</sup>. Bibliaren itzulpen eta edizio debekatuen sarrera ere ongi kontrolatuta eduki nahi izan zen (1551, 1554), horretarako liburudendarien biltegiak ere zainduz<sup>116</sup> Bibli argitalpen horien artean egon zen, adibidez, Casiodoro de Reinaren gaztelaniazko Biblia (Basilea, 1569)<sup>117</sup>.

#### — Hizkuntzen poza eta nekeak

Oro har Erreformak hizkuntzei aitortzen zien leku teorikoaz eta Euskal Herri inguruan hark bere liburu eta argitalpenetan izan zuen hizkuntzen erabilera praktikoaz ideiarik agertu izan zen garaioko testuetan.

1523ko Pasaiaiko liburu erreformatu haiei buruz Inkisizioko arduradunek espreski azpimarratu zuten zein hizkuntzatan zeuden: latin eta erromantzezko testuak zirela, alegia? Ondoko urteetan bildutako liburu susmagarriei buruz ere “todos en vulgar francés”, eta horrelako oharrrak ezagunak dira<sup>118</sup>.

109 Reguera 1984: 166.

110 Reguera 1984: 134, 134-135

111 Reguera 1984: 136.

112 Reguera 1984: 139-140.

113 Euskal portuetako liburu aehienak Penintsula-barnealderako izaten ziren: Medina del Campo, Alcalá de Henares, etab. Reguera 1988: 537

114 Reguera 1984: 141.

115 Reguera 1984: 162.

116 Reguera 1984: 129.

117 Bibliaren argitalpen protestante espainolen berri: M'CRIE, T. (1950): *Historia de la Reforma en España en el siglo XVI*. Buenos Aires: Editorial La Aurora. II 7-125. Reguera 1984: 142.

118 Longhurst 1968: 26-27.

119 Reguera 1984: 158.

1539an protestanteak berriro ere hemen genituen, Bilbon eta Donostian, Inkisizioari lana emateraino. Dokumentazio interesgarria utzi digute artxiboetan. Kasu honetan, gainera, hizkuntzari buruzko salakuntza inkisitorialik ere ez da faltako, Juan Tac deituriko jatorriz flandestar eta hiritar ingeles batek, *Gure Aita* latinez erreztatzea itxuragabekotzat eman baitzuen, eta aitzitik, ingelesez egitea berriz egokiagotzat<sup>120</sup>. Bilboko Inkisizioak, interpretarij eta guzti egin-dako galdeketan, garbiki ageri da Ingalaterrako lutertarren arteko hizkuntz politika:

Preguntado sy sabia rrezar las oraciones dixo que sabia rrezar las oraciones del Pater Noster e la Avemaria y el credo en lengua latina pero que esta mandado en Ynglaterra que no las rezen syno en lengua yngles en otra lengua alguna<sup>121</sup>.

Ingelesez idatzita zeuden liburuetariko bata irakurtzen ikastekoa zen, eta bigarrena, itzulpen biblikoa. Juan Tac honek berau eskuartean izateko arrazoa honela eman zuen, bide batez herritar batek Ingalaterrako argitalpen politika nola ulertu zuen ispliatuz:

...y la segunda de esta de tablas con manillas dixo que quando se publico en Ynglaterra que se mandaba por el rrey que todos los que supiesen ler tomasen este libro del Nuevo Testamento y en el leyesen asy lo tomo y compro<sup>122</sup>.

Itzulpenen eta herri-hizkuntzen eliz erabilpenen aitzinean Inkisizioak zuen sentiera eza-gutzeko, Kalagurrikoaren aurrera eramandako J. Perdriau higanautari egin zitzaion salakizuna adierazgarria da: salmuak frantsesez kantatu izan zituen Perdriau-k, Penintsulara etorri baino lehen (salatzaileen ustetan, haren “luteritasuna” nabarmentzen zuen horrek)<sup>123</sup>.

“Heterodoxiaren” arbuio teologiko horren ondoan, Inkisizioak bazuen, gainera, beste susmo-arrazoirik ere: eguneroko lanean interpretariak behar izaten zituen, eta ez zen erraza hizkuntza arrotzen basoan heretikoen ibilera, asmo eta ideiak ongi zaintzea<sup>124</sup>. Bada, testuinguru honetan, euskararekiko pasadizo deigarriak.

1567ko ekainean Moral inkisidorea Donostian zebilen bere peskisak egiten. Mugaldekoe hiria izateaz gain, donostiarrengan atzerritarrekiko estimu eta harremanak ikusten zituen jaun inkisidoreak: “en los naturales de esta villa hay demasiada afición a los franceses y se juntan con ellos por vía de casamiento, *hablan siempre su lengua dejando la propia y la española*”. Ondoren Gipuzkoa osoaz gehitzen duena ez da batere galtzekoa:

Voy entendiendo el humor de esta tierra, que lo que toca a uno toca a todos y lo toman a voz de conejo [...], hacen dos juntas generales al año, cosa peligrosa [...] y se han atrevido en sus juntas generales que no se consentiese entrar la Inquisición en esta provincia y han dado de cuchilladas al alguacil mayor desta Inquisición y hecho otros atrevimientos<sup>125</sup>.

Testuinguru orokor horretan euskarari ere suertatu zitzaion berea: inkisidore jaunak notariorik behar izan zuenean, mesfidantzaz beteta, jatorriz bertokoa ez zena eta *euskaraz hitz egiten ez zekiena nahi izan zuen* (“porque todos son uno” izan zen emandako arrazoa)<sup>126</sup>. Zorionez, XVI.lean ez zituzten denek susmo eta errezero berak, eta beti galde liteke Euskal Herriko Erreformak —leizarragatarren aurretik ere— zein jokabide linguistiko izan zuen.

120 LONGHURST, J.E. (1967): “Los primeros luteranos ingleses en España (1939)”, in: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, n. 1, 1967, 19 y 22-23.

121 Longhurst 1967: 21.

122 Longhurst 1967: 21.

123 Reguera 1984: 158.

124 Reguera 1984: 144.

125 Reguera 1984: 163.

126 Reguera 1984: 163.

— Erreforma, euskaraz ote?

Euskarazko lehenengo testu protestanteak, 1523koen artean etorri ote ziren esan da, inoiz; ez dut uste horrelakorik froga daitekeenik<sup>127</sup>. Hurrengo berehalako hamarkadetan, izan, Euskal Herrian horrelakorik izan baldin bazen, Iparraldekoak eta 1540.aren ingurutik honakoak izan ziren seguraski<sup>128</sup>. Data haietaz zera idatzi du Lafitte-k:

Luthertiarren hatzik ez dugu hemen gaindi kausitzen mende hartako berrogoi lehen urtetan. Handik goiti ordean, bai, erlisione berriaren hedatzaileak ikusten dira ipar-Eskualherriko jauregietan, apeztegietan eta burgesen etxetan ibilki; buruzagiak eta handi-mandiak nahi dituzte lehenik bildu, gero jende xehek aiseago jarraikiren zaiotelakoan<sup>129</sup>.

Zerbait beranduago, jada Leizarragaren lan-egunetan, bada Euskal Herrira iritsi zen bidari baten albisterik ere. Euskal Hegoalde-Iparraldeak lotzen dizkigun ikustaldi bat egin zuen Aita Possevino jesuitak Baiona eta Donostiara, 1565ean. Protestantismoaren kontrako kanpainenetan iharduna izanik eta Frantzia-Espainietako Gorteak Baionan bilduta zirela, Euskal Herriko lan protestantez arduratzeko gizon aproposa zen Possevino; ez da beraz harritzekoa arazoz berriemaile izana<sup>130</sup>. Possevino-ren bidez ziur dakigu, gaur egun ezagutzen ditugun euskarazko testu kalbindarren aurrekorik hedatu zela euskaraz:

Eta Espainiako Erregina Baionan sartzen zen egun eta ordu beretan, orduantxe egun eta ordu beretan sartzen ziren hirira kontrako atetik Turkoaren enbaxadaria, Chiaussio deitua, konferentzian zelatari-lana egitera, eta aldi berean Geneva-ko kalbindarrek hara bidali zituzten liburu-saltzaileak liburu heretikoak eskainiz, eta batez ere Possevino-ren aurka Geneva-n idatzitakoak, eta *Frantziako mugaldeen nonahi banatzen ziren euskaraz idatzitako kateximak (izan ere Baionan eta inguruetakoa herrietan hizkuntza hori erabiltzen baitute, eskuz idatzita emateko ere oso zaila gainera, eta ez bakarrik moldiztegitz argitara emateko)*, eta horrela buruhauste berri bat bizkarreratu zitzaion Possevi-

127 Lafitte-k laburbildu ditu Leizarraga aurreko euskarazko inprimaki kalbindarren albisteak (LAFITTE, P. (1984): "L'oeuvre des protestants dans la littérature basque avant et après Licarrague", in: (1984): COLLOQUE INTERNATIONAL D'ORTHEZ (1984): *Actes du... (16, 17 et 18 février 1983)*: "Arnaud de Saliete et son temps. Le Béarn sous Jeanne d'Albret". Orthez: Per Noste. 201-202 [Aurrerantzean: Colloque/Orthez 1984]). Hiru ikerlan jakin hartu ditu iturrizat (Ritter 1951-52 [hurr. oh.], Longhurst 1967 eta 1968, Lopetegui 1949 [ik. hau 129. oh.]). Horiek abiapuntu dituela, baieztapen interesgarri hau egin du autoreak: "Dès 1523, à Pasages (Guipuzcoa) la propagande en langue basque est assurée par des luthériens, et en 1539, à Bilbao comme à Saint-Sébastien, des Anglais continuent à diffuser des tracts traduits en biscayen et en guipuzcoan, toujours dans la ligne luthérien" (Lafitte 1984: 201-202). Nire aldetik aitor dezadan, Lafitte-k XVI. mendearen lehen erdirako eman dituenak Longhurst-en lanetan oinarritu nahi direla baina honen dokumentazioan ez dudala ikusten birretsita frogatu nahi den euskararekiko baieztapen hori. Behin baino gehiagotan, eta aukera ezberdinetan aipatzen dute aairiek hizkuntzaren arazoa, baina uste dudanez ez da inoiz euskararik eta euskaraz inprimatuia deus aipatzen. Aitzitik, merkatari eta itsasgizonen hartutako liburu lutertar debekatuak, 1523ko kasuan, latinezkoak nahiz erromantzezkoak ziren (Longhurst 1968: 26-27: "...dentro de XV días del día de la publicación del dicho vuestro mandamiento o del día que de él supiere en cualquier manera, trayga y presente ante vovotros y cualquiera de vos [inquisidores] todos los libros de las dichas obras y traslado de ellos que tuviere, así en latín como en romance...", edo ingelesez zeuden, 1539ko auzian (Longhurst 1967: 21-23: "todos estos libros son escritos en molde en lengua ynglesa" idatzi zen). Muga eta portuetatik Hegoaldera sartu ziren eta sar zitezkeen liburu protestantez albisteak: Olaizola 1993: 201-213.

128 Ik. RITTER, R. (1951-1952): "Jeanne d'Albret et la Réformè chez les Basques", in: *Eusko-Jakintza*, 1951, V, 183-215; 1952, VI, 36-59. (Garazi, Baiqorri) eta Lopetegui 1949. Dena den, inprimaki lutertarren debeku eta pertsegizio ofizial arretatsuak nolakoak izan ziren jakinik, beti uste iteke ezagutzen ez dugunik egon, egon zela ere: "Les fameux tracts, libelles et pamphlets protestants en langue basque ont dû être détruits. En tout cas, nous n'en connaissons aucun malaré bien de recherches. Encare moins savons-nous auels en étaient les auteurs" (Lafitte 1984: 202).

129 LAFITTE, P. (1972): "Zer dakigu Leizarragaz?", in: *Eusker*a, XVII, 1972, 144.

130 LOPETEGUI, L. (1949): "El Padre Possevino en Bayona y San Sebastián", in: *Homenaje a D. Julio de Urquijo y Ybarra*. San Sebastián. I, 241-248.

no-ri, izurrite hura nola geldiarazi ahal izango ote zuen alegia, eta sano eta ortodoxo zegoen Espainiako Erreinuean hainbesteko gortesau-andana haren bidez sar zitezkeen liburu kiratsu haien sarrera nola eragotz [Azpm. nirea da]<sup>131</sup>.

Izan ere, Espainia —Trentoko arauen sustatzaile suharra— haiek erabakiorki egikaritzera zioan. Komeni da, ba, Erreforma Katoliko trentotarraren beste aurpegi hau apur bat begiratzea.

## 5. ERREFORMA KATOLIKOAREN ARRASTOAN (1545-1600)

Elizbarrutiek bezala Ordena erlijiosoek ere, Trentoren eskakizunei jarraiki, berrikuntzari heldu zioten piskaka Kontzilioaren ondoren (1545-1563). Iruñeko elizbarrutiaren erreformaren historia berrikitan berraztertu du Goñi Gaztanbide-k<sup>132</sup>, eta horren barruan Donostiakoa ere ezaguna dugu, bere bertako parrokia batean bederen<sup>133</sup>. Erlijiosoen etxeei buruzko zenbait monografia ere bada<sup>134</sup>.

Elizbarrutietako Sinodoek, Gotzainen bisitaldiek, komentuetxe berriek, prediku zainduagoek, herritarren heziketa arretatsuagoak eta abarrek, geldiro baina aspertzeke egikaritu zuten Erreforma katolikoaren asmoa. Gisa beretsuan balio du oharpen honek Iruñeko nahiz Kalagurriko elizbarrutietarako, nahiz eta bilatzen ziren emaitza onak geroago batean etorri.

Biblia herritar katolikoaren historia interesik gabekoa ez izan arren<sup>135</sup>, jakina da Eliza Erromatar latinoan Bibliaren erabilpen herritarrek nahiz Liturgiak erlatiboki gutxi lagundu ziotela, erreformaren barruan, herri-hizkuntzen garapenari. Bestelakorik gertatu zen, ordea, katekesi edo predikuarekin, hauetan herri-hizkuntzei eman zitzairen lekuagatik. Badugu hauetaz, gainera, Leizarragaren garaiko albisterik.

### 5.1 .Herriaren heziketa kristaua: Dotrina eta predikua

Eliz erreforma katolikoak leku ardatza eman nahi izan zion fededunen heziketa berriari, katekesi eta predikutik hasita<sup>136</sup>. Eliza osoarentzat balio zuen jokamolde honek, eta baita Euskal Herriko elizbarrutietarako ere. XVI. erdialdera, Hegoaldean izan genituen apezpikuek baliabide pastoral berak erabili nahi izan zituzten; besteak beste, Pacheco (Iruñea, 1539-1545) eta Luku (Kalagurri, 1545-1556) gotzainak eredu garri izan ziren horretan, biak ere Trento-n saiaturki lan egin zutenak, hain zuzen<sup>137</sup>.

131 Possevino-ren testua latinez idatzita dago, eta eskuaren dudana Lopetegi-ren gaztelaniazko itzulpena da. Gogoan hartzekoa da itzultzailearen ohar hau: "El autor dice, «Cantabrice editi cathecismi», catecismos publicados en lengua cántabra, donde fácilmente se ve que se trata de euskera. El paréntesis que le sigue, algo difícil de comprender perfectamente, dice «(nam Bayonae et proximis in oppidis ea utuntur lingua, difficillima caeteroquin quae notis exprimi possit, non modo quae typis proferatur)». «Notis exprimi» ilun hori Lopetegik "ser explicada" bezala itzuli du, "imprimirse"-rekin kontrajarrit. Nire aldetik nahiago izan dut "eskuz idatzita" bezala ulertu, eta espreski inprimaketari kontrajarrita eman.

132 GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1985): *Historia de los obispos de Pamplona. IV. Siglo XVI*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

133 TELLECHECHEA IDIGORAS, J.I. (1972): *La reforma tridentina en San Sebastián*. San Sebastián: Dr. Camino.

134 Berehala aipatuko ditugunez gain, hona adibide batzuk: AZCONA, T. de (1983): *Presencia de los capuchinos en Rentería (1612-1837) y (1958-1983)*. Donostia: Dr. Camino. RODRIGUEZ-SAN PEDRO BEZARES, L.E. (1982): *Carmelitas descalzas en San Sebastián (1663)*. San Sebastián: Dr. Camino. URIBE, A. (1988): *La Provincia franciscana de Cantabria. I. El franciscanismo vasco-cántabro desde sus orígenes hasta el año 1551*. Aránzazu: Editorial Franciscana Aránzazu. (Bigarren lib. argitaratzeke 1993an).

135 Jedin 1972b: II, 82.

136 Jedin 1972b: II, 117-144.

137 Jedin 1972b: II, liburuan zehar ikus liteke bion parte hartze hori. Prezeskiago: Jedin 1972b: II, 121, 2 oh., eta GOÑI GAZTAMBIDE, J. (1947): *Los navarros en el Concilio de Trento y la reforma tridentina en la diócesis de Pamplona*. Pamplona. 153.

Kontzilioan, eta gero diozesietan, katekesia bezala predikua, fededunen heziketarako elkarren osagarri legez begiratu eta arautu izan ziren; bietan, ordea, katekesiak izan zuen eragin bereziagoa, bai asteroko betebeharrak gisara arautu zelako<sup>138</sup> bai, kateximak inprimaraztean, hizkuntzen erabilpena idatzi herritarra sustatzeagatik. Honetan, katexima katolikoei ere baliokor izan zuten, hizkuntzen bizitza kulturala moldatzean<sup>139</sup>.

Katekesiaren esperientziak eta, oro har, heziketa-nahiak haur-eskolak eratzeko eman izan ziren arrazoietako bat, herritarrentzat eskolaren bat sortzea izan zela, hau da, kristau-heziketa hobeki zaindu beharrena (Oñati, 1551; Arrasate, 1582; Tolosa, 1587; Bergara, 1593; Zarautz, 1617, etab.)<sup>141</sup>. Eskekoen eta josulagunen etxe haiek luzaro iraun zuten lan horretan (geroago etorriko ziren irakas-kongregazioen aurretik ere); XVIII-XIX. mendeetako lekukotasunek erakusten digute zerbait horretaz (Arrasaten edo Donostian, adibidez: 1795, 1815, 1820etan)<sup>142</sup>.

Azurmendik azpimarratu duenez, Trento-ondoko apaizen lanak, heinen batean, eskola-gintza ere sustatu zuten<sup>143</sup>. Alor horretan, garaiko apaizen betebeharrerako bat zen irakaskuntza zibilaren ikuskatzaile izatea, eskola-liburuak nolakoak ziren zainduz (Donostia, 1564)<sup>144</sup> eta irakasleen bizi-burubidea begiratzuz (Donostia, 1559)<sup>145</sup>.

Esan dugunez, katekesia —beraren irakasgune propioa “dotrina” izan arren— jeneralean predikuari, eta batez ere igandetako predikuari lotuta ageri zaigu: gotzaina, parrokiako erreto-rea nahiz jai edo ospakuntza berezietako predikari erlijiosoak ziren kristau helduentzako fedearakasleak. Halaxe ikusi eta erabaki zuen Trentoko Kontzilioak<sup>146</sup>, eta bereziki horixe zaindu izan zen gotzainek herrietako elizetara egin izan zituzten erreforma-bisitaldietan<sup>147</sup> nahiz erlijiosoen komentuei ezarri izan zitzaizkien sorrera-baldintzetan.

Ez dirudi, ordea, gotzainek predikurako egindako oharpenek berehalako emaitza iraunkor eta zabalik ekarri zutenik<sup>148</sup>. Kalagurriko Luku gotzain arabarrak argiro gogoratu zuen Euskal Herrian (Españian edo Italian bezalatsu) apaiz eta predikari trebatuen eskasia konpondu premia<sup>149</sup>. Urte batzuk geroago (1564), Iruñeko doktore bisitariak gogorki salatu behar izan zuen Donostiako egoera eskasa<sup>150</sup>, mendearen hondarretan ere berriro salatuko zen be-

138 Tellechea Idigoras 1972: 69, 73, 78, 245, 265, 271, 275

139 Jedin 1972: II, 118-119, 1 oh. (bibliografia).

140 Goñi Gaztambide 1985: 204.

141 URIBE, A. (1988): *La Provincia franciscana de Cantabria*. (II: argitaragabea): Arrasateko frantziskotarren etxeaz eta ikastetxearekiko herritarren eskeaz: 162, 171, 172, 177, 179, 182, 183, 187, 188, 197, 200, 202, 203-204. Eta Tolosakoaz: 209-210, 216, 225-232, 234, 235. Zarauzkoaz: 310, 312, 322. Josulagunen Euskal Herriko historiari: MALAXECHEVARRIA, J. (1926): *La Compañía de Jesús por la instrucción del País Vasco*. San Sebastián: San Ignacio. 28, 33, 42.

142 Uribe II (argitaragabea) 204. LASA, J.I. (1982): *Los franciscanos en San Sebastián (1512-1606)*. San Sebastián: Dr. Camino. 104-105.

143 AZURMENDI, J. (1985): “Irakaskuntza eta pentsamendua”, in: INTXAUSTI, J. (ed.): *Euskal Herria. I. Historia eta gizartea*. Arantzazu: Jakin 377. lk., gainera, Tellechea Idigoras 1972: 39

144 Tellechea Idigoras 1972: 39, 150.

145 Tellechea Idigoras 1972: 80, 281.

146 Jedin 1972: II, 117-144.

147 Goñi Gaztambide 1985: IV, 203-205.

148 Donostiako San Bizente parrokiako Gotzain-bisitaldietan ikus liteke (1564) Erreforma zein zaila zen, eta batzuetan zein antzua eliz agintarien borondatea. Katekesiari eta igandetako predikuari buruzko oharren alboan, gerora lekuko batek zera idatzi zuen: “Jamás se ha hecho” eta “Tampoco se a hecho esto. Manda se haga todas las fiestas”. Tellechea Idigoras 1972: 43, 149.

149 lk. testuak: Azurmendi 1985: 377.

150 Tellechea Idigoras 1972: 149.

zala<sup>151</sup>. Haur eta gaztetxoek heziketak aje beretsuak zituen, baita herri txikiagoetan ere (La-sarteko kasua ezagutzen dugu, 1569): haurrek ezer gutxi ikasten zuten dotrinan<sup>152</sup>.

Elizgizonen katekesian eta predikuan somatzen zitzaizen zabarkeria, utzikeria baino gehiago ezina eta prestakuntza faltaren ondorioa zela pentsatu behar da<sup>153</sup>. Kontzilioak ere izan zuten eskastasun horien kontzientzia<sup>154</sup>, baina Seminarioen sorrera berantiarra arte (XVIII.ean) konponbide ezina izan zuen horrek<sup>155</sup>, nahiz eta elizgizonen artean asteroko ikas-bilerak eratu ziren hiri handietan<sup>156</sup>.

Hauek dira hezkuntz egoeraren alde nagusiak, baina, horiekin batera, komeniko da orain ahalegin haietan euskarari eman nahi izan zitzaion lekuaz zenbait datu biltzea ere.

## 5.2. Euskara Erreforma Katolikoan (1545-1600)

Erreforma katolikoaren hizkuntz politikako lerro nagusiak Trentoko Kontzilioan geratu ziren finkatuta, edo, nahiago bada, beren malgutasun nahiz anbiguitateekin definituta. Horren barruan, tokian tokiko egoera soziolinguistikoei baldintzatu zuten haien egikaritze soziala.

Eliza erromatar latinoaren barneko hizkuntza herritarren erabilpena ez zen eliz esparru guztietarako erabakiarren erabaki: Bibliaren itzulpen<sup>157</sup>, Liturgi bizitza<sup>158</sup>, prediku edo katekisirako<sup>159</sup>, kasu bakoitzak izan zuen bere irtenbide propioa, Eliza Erromatarraren betidaniko irizpide nagusien barnean.

Katexima eta predikuari buruz erabaki zirenetan, euskarazko argitalpenen eta predikari euskaldunen premia azpimarratu zen Hegoaldean. Joan Bernal Diaz de Luku Gotzainak, Trentoko Kontzilioa amaitu baino lehen idatzi zuen testu hau (1551):

...que tengan particular cuydado de hazer ocupar los clérigos, que tuieren doctrina vascongados, en predicar en su lengua, las más vezes que pudieren, y repartiéndose por la tierra, pues sabe V.m. la necesidad que ay en ella de doctrina, y la falta de personas que se puedan y quieran ocupar en ello<sup>160</sup>.

Trentoko Kontzilioa amaitu eta berehala, badakigu Arabako Lautadan eta Arana-n hango erabakien berria herritarrei euskaraz nola eman zitzaizen (1565)<sup>161</sup>, eta hurrengo mendean horretan arreta hoberik ere jarri zela, euskaldunei mintzatzean<sup>162</sup>.

Aholku hura eta burubide eredugarri hau ahantzi gabe, geroko Sinodo-arauek ere jaso zuten prediku-lanari buruzko ardura, Pedro Manso-k birretsitako konstituzio honetan, adibidez (1600.ean):

151 Tellechea Idigoras 1972: 57, 58, 205-206, 208.

152 Goñi Gaztambide 1985: IV, 203.

153 Pacheco bezalako Gotzain erreformazale batek herrietako elizgizonen eska ziezaikeen heziketa-maila ongi apala zen, artean (1540-1545). Goñi Gaztanbide 1985: III, 325.

154 Jedin 1972b: II, 115.

155 Telleche Idigoras 1972: 98.

156 Seminarioen faltaz, asteroko ikas-bilerak eratu ziren hurrengo mendean (1634, 1646): Tellechea Idigoras 1972: 71, 75, 255, 267.

157 Kontzilioa eztabaidaz: Jedin 1972: II, 81-115.

158 Jedin 1972b: II, 499-540. Goñi Gaztambide 1985: IV, 208.

159 Jedin 1972b: II, 117-144.

160 Azurmendi 1985: 377.

161 CIERBIDE. R.; VALLEJO, P. (1983): "Historia de las lenguas en Alava", in: LLANOS, A. (1983): *Alava en sus manos*. Vitoria: Caja Provincial de Alava/Arabako Kutxa. II, 30-31.

162 PORTILLA, M.J. (1979): "Datos y noticias sobre el vascuence en Alava (siglos XVI y XVII)", in: *Norte Express*. Vitoria, 1979, 5 de agosto, 50. or. (extra).

*Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence.* Porque somos informados, que en la tierra Vazcongada, y especial en los lugares, que la mayor parte de ellos habla Vazquence, los Predicadores por autoridad predicán en Romance, y no en Vazquence; de lo qual se sigue grande daño; y que la gente que viene de las caserías à oírlos, como no saben Romance, se salen ayunos del Sermon. Por tanto, Santa Synodo Aprobante: Ordenamos, y mandamos, que en los tales lugares los Sermones se hagan en Vazquence<sup>163</sup>.

Predikuaz hainbat erabaki hartu ziren Iruñeko elizbarrutian Erreforma Katolikoaren (1539-1561) nahiz Kontrarreformaren barnean (1561-1600); baina giza baliabide diozesitarren muga jakinak ukitzean, berriz ere erlijioso erreformatuetara jo beharra egon zen, hauek beren jende-prestakuntzarako indarrean baitzituzte beren betiko ikastetxeak, edo gai ziren, gainera, erlijioso predikariak prestatzeko, nahiz herritarrentzat eskolak ere eratzeko. Horregatik Erreforma katolikoak erlijioso-etheen premia azpimarratu behar izan zuen<sup>164</sup>.

Horrela, ba, gurean ere saiatu ziren erlijioso eta herritarrak Trento-ondoko hamarkadetan komentu berriak irekitzen; esate baterako, Gipuzkoan izan zuten garrantzia ezagutzeko Isastiren obran ditugu 1625eko datuak: erlijiosoek 12 etxe zituzten, eta mojek, berriz, 20<sup>165</sup>.

Komentuetxeak sortzeko arrazoi eta baldintzetan predikari trebeen eskakizuna agertu ohi zen, haiengandik hizkuntz gaitasun zainduagoa espero zelako, nonbait. Arrasate-ko frantziskotarren etxea eraikitzean, Araotz ongileak, adibidez, Aita Goardianoa euskalduna izan zedila eskatu zuen: “religioso que sepa hablar y predicar en lengua bascongada”<sup>166</sup>.

Beranduago izan arren (1712: beti ere Erreformaren olatualdi luzearen barnean, noski), argigarria da Erreenteriako kaputxinoen komentuan bizi izandako historia, herrien eta komentu baten arteko harremanetan euskararen lekua definituz nola joan ziren jakiteko. Orobat, premia soziolinguistiko beretsuei erantzuteko, Zarauzko misiolarien etxeak (1746) izan zuen pastoral-euskalgintza<sup>167</sup>.

Eta gatozen prediku-lanetatik euskarazko dotrina-iharduerara. Katekesi-lanetarako laster agertu ziren “dotrinak” (kristu-ikasbideak), latinez bezala erromantzez edo euskaraz<sup>168</sup>.

163 Pedro Manso Gotzainaren arau sinodala (1600). Ik. *Constituciones Synodales Antiguas y Modernas del Obispado de Calahorra y la Calzada*. Madrid, 1700. Constitución XII.

164 Erlijiosoek predikari bezala betetzen zuten lan osagarriaz. Jedin 1972b: II, 119-121.

165 MARTINEZ DE ISASTI, L. (1625): *Compendio historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*. Bilbao (1972): La Gran Enciclopedia Vasca. 205-208: “De los Conventos de Frailes, Padres de la Compañía de Jesús, y de Monjas de Guipúzcoa”. TELLECHEA IDIGORAS, J.I. (1981): “Del Concilio de Trento a la Ilustración”, in: (1981): *I Semana de Estudios de Historia Eclesiástica del País Vasco*. Vitoria: Facultad de Teología. 111-113. Iparaldean Erreforma Katolikoaren olatu honek XVII.ean eman zuena jakiteko, ik. MOREAU, R. (1970): *Histoire de l'âme Basque*. Bordeaux: Imprimerie Taffard. 209-238: “La réforme catholique”.

166 Uribe (argitaragabea) II, 169. GUERRA, J.C. (1907): “Un patriota vasco en el siglo XVI. Juan de Araoz de Uriarte”, in: *RIEV IX*, 1918, 27. INTXAUSTI, J. (1992): *Euskera, la lengua de los vascos*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak. 82.

167 Azcona 1983: 45-4688-89. 94-99. Bide batez gogora dezagun 1609an, lehen komentua irekitzean, zarauzkar askok ez zekiela, nonbait, gaztelanirik, Korrejidoarek idazkariari espreski eskatu baitzion eraikuntzaren berri herritarrei euskaraz ere eman diezaiela (Uribe, argitaragabea, II, 298). 1587an Iruñeko gotzaindegiak elizbarrutiko herriak “romanzados” eta “bascongados”tzat banatzen zituen aisara. Zarauzko fraileek. Aita Añibarrok (c. 1820) idatzitako herri euskaldunen rarrutia mugatuta zuten bere: Kronika ofizialean. Ik. VILLASANTE, L. (1956): “Una lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra de principios del siglo XIX”, in: *BRBAP XII*, 1956, 433-446.

168 Gofñi Gaztambide 1985: 205.



Pastoraltzaren eleaniztasun honek ez gaitu sobera harritu behar, zeren Euskal Herrian lehenetik baitzeturten latina eta erromantzeak erabiltze hau<sup>169</sup>.

Hegoaldeko lehen liburu inprimatua —baina galdua: Elso-ren *Doctrina*— urte haietako giroan begiratu behar da (1561)<sup>170</sup>. Ez dakigu berehalako segida nola izan zuen horrek<sup>171</sup>, itxura guztiz argitalpen-molde haien katean begi anitz galdu baita. Uste liteke, Euskal Herrian hurrengo mendean Erreforma katolikoak izan zuen goraldiarekin lortu zela argitalpen jarraitasun leialagoa, Betolatzarekin hasi (1596) eta Belapeire (1686) nahiz Otxoa Arinenganaino edo (1713).

Sinodoak izan ziren iritsi zaizkigun edo galduta ditugun dotrinen sustatzaile: Pedro Manso (1600) eta Pedro Lepe (1698) gotzainen Sinodo-arauek aurreko mendetik zetorren hizkuntzarekiko ardura ispilatu zuten. Hizkuntz politika hartan badago berezikiago aipa litekeen alderik<sup>172</sup>:

1) Dotrinarak, elebidunak izatea nahi zen (“las que se imprimieren en Vazquence tengan también la Doctrina en Romance”, 1600).

2) Euskalki eta hizkuntzaren eskualde bakoitzaren araberakoak izan behar zuten kristau-ikasbideek (“ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipúzcoa y Alaba: [...] hagan imprimir cada año cartillas [...] según el uso de las dichas Provincias, para que los curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia” (1600), zeren “hallamos que no es fácil dar impresso texto [...] que uniformemente pueda servir en todas las tierras, en donde se habla este idioma, por la mucha diferencia que ay del Vazquence de unos lugares à otros”, 1698). Euskalkien arteko aldeak gainditzeko, azalpen laburrak emango ziren berorietan (1698).

3) Urtero argitara emanak (“los Señores Obispos, nuestros Sucesores, hagan imprimir cada año cartillas de la Doctrina Christiana en Romance, y en Vazquence”, 1600), edo ahal zena egin behintzat (“en quanto ser pueda”, 1698).

Legeetan horrela arautu zen euskararen dotrinetako erabilpena. Arauan aplikazioaz ezer gutxi dakigu: badirudi legeak —xehetasun horiekin, beintzat: urterokotasuna, euskalkitasun osoa, irakur-heziketa— oso neurri apalean gorpuztu zirela gure gizartean.

Ez dotrinek eta ez katekesiari hurbiletik jarraiki zitzaizkion aipatutako herri-eskolek ekarri zuten, nik dakidanez, herritarren alfabetatze zabaldurik. Ia osorik ahoz eramandako lan mintzatua izan zela uste da, eta ez zuela herritarrengan euskarazko irakur-ohiturarik sortu (handik

169 MICHELENA, L. (1960): *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid: Minotauro. 3. Bertan Etxabe-rengandik jaso duen pasartea zinez argigarria da. Euskal Herrian heziketa erlijiosoak orduko literaturgintzan izan zuen lekuaz: 59-62.

170 REMENTERIA, J.M. (1975): “Euskal «Kristau Ikasbideen», historia laburra”, in: NIMEGAKO KATEKESI INSTITUTUA (1975): *Kristau Bidea*. Oñati: Jakin. XVII-XXIV.

171 Argitalpen hauetarako euskal Elizbarrutietako bertako zailtasunak ezagutzeko Euskal Herriko inprimategien historia begiratzeari lagungarri izan daiteke. Ik. bibliografia klasikoek gain, URUNUELA BERNEDO, J. (1989): “Mathias Marés, primer impresor de la Villa de Bilbao (Vida paralela)”, in: *Catálogo de la Exposición Temática de Libros Vascos Antiguos, Raros y Curiosos. Celebrada en los salones de la Sociedad Bilbaína con motivo del CL Aniversario de su fundación*. Bilbao: Diputación Foral de Vizcaya. II-35 (Garbái, Kontrarreforma, moldiztegia eta hemengo argitalpenen arteko zerikusiak iradokita). Hegoaldeko historia orokorra: MOSQUERA ARMENDARIZ, J.A.; ZUBIZARRETA, C. (1974): *Guión manual de tipografía vasco-navarra*. Pamplona: Imprenta Navarro. Iparralderako ik. aipatuko dugun Pic-en lanean: *Coloquio/Orthez* 1984: 104-105, 9-10. oh.

172 *Constituciones Synodales Antiguas y Modernas del Obispado de Calahorra y la Calzada*. Madrid, 1700. 126. Rementeria 1975: XVIII.

bi mendetara Kardaberaz eta Larramendik egindako oharra jaso ditu Zalbidek eskolaren ahozkotasan mugagarri horren proba bezala)<sup>173</sup>.

Dena den, beren helburu nagusietan eta hizkuntzen erabileraren aldetik, ezingo ditugu berdindu orduko katekesia eta haur-eskola: hark, fededunaren heziketa euskaraz ere ematearena azpimarratu zuen bere xedeetan; honek, ordea, gehienez halabeharrezko euskararen abiapuntutik hasita erdaretara iristea.

## 6. JOANA ALBRETEKOA, ERREFORMAREN BURU (1560-1572)

Nafarroa Garaiko Erreina Errege Katolikoaren eskuetara eta Gaztelako Koroaren menpera eraman zutenetik (1512), Nafarroako Erresuma burujabearen historia Pirinioz iparraldeko Albetarren domeinuetara are begirago bizi izan zen: ezin izan zuen inguru haietako gorabehera aldartetsuei sorbalda emanez bizi izan.

Bestalde, Joana Albretekoaren urteetan (1555-1572) bete-betean iritsi zen Erreina Kalbinismoaren olatur; eta halabeharrez eta dinastiaren patuz, Frantziako Erreinan hain odoltsuak izango ziren erlijio-gerren artean suertatu ziren Nafarroako Erregeen lurraldeak ere (1559-1598).

### 6.1. Erreforma nafarraren aurrekoak (1525-1555)

Hori dena, ordea, ez zen hala egokitu aurreko hamarkadatan zenbait aldakuntza, hurbiltasun eta harremanen bidez apurka-apurka bideak horretarakoxe samurtu gabe. Nafarroako Erret Gortea bere herritarrengana ezezik kanpoko haizeetara guztiz irekia zen, nahitaez Frantziako eta Gaztela-Aragoetako Erreinetara begira segurtatu behar izaten baitzuen bere etorkizuna.

Joana erretaulkira igo baino ia berrogei urte lehenago jaiota zen Protestantismoa Luterekin (1517), eta hamabosten bat urte lehenagotik Kalbin-ek bere egoitza hartua zuen Genevan (1541), hain zuzen Nérac-eko Gorte nafarretik ihesi pasatatu gero. Humanismoak eta Erreformak, Nafarroako Gortea oasi ebanjeliko eta protestante bihurtuko zuten urte batzuen buruan<sup>174</sup>.

Frantziako Frantzisko Laren arreba eta Joana Albretekoaren ama, Margarita Nafarroakoak (1492-1549) ekarri zituen Nafarroa eta Biarnora Humanismo ebanjeliozalearen molde literarioak, lehenik mezena-lana eginez, eta gero, bere idazlanekin<sup>175</sup>. Urtez urte hainbat obra idatzi ondoren, hilondoan argitaratutako haren Heptaméron gertatu da batez ere gogoratua literatura frantsesaren historian (1559)<sup>176</sup>.

Ezaguna dugu Margarita Erreginareen kezka erlijiosoa, eta haren obraren parte on bat baruti horixe lantzerantz zuzendua izan zen, beti ere mugimendu erreformazalearen arrastoan<sup>177</sup>.

173 ZALBIDE, M. (1990): "Euskal eskola, asmo zahar bide berri", in: (1990): *Euskal Eskola Publikoaren lehen Kongresua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. I, 217-218, 219.

174 ARBELOA, V.M. (1992): *La Corte protestante de Navarra*. Pamplona: Institución Príncipe de Viana.

175 CAZAUX, Y. (1984b): "Les sources septentrionales, méridionales et orientales de la pensée de Marguerite d'Angoulême", in: *Colloque/Orthez 1984*: 55-65 (127. oharra).

176 Historialari maisu batek aztertu zigun hori: FEBVRE, L. (1944): *Amour sacré, amour profane. Autour de l'Heptaméron*. Paris: Gallimard. (Dugun edizioa: 1971). WEBER, H. (1971): "Marguerite d'Angoulême, Reine de Navarre", in: ABRAHAM, P.; DESNE, R. (ED.) (1971): *Manuel d'Histoire Littéraire de la France*. Paris: Ed. Sociales. I, 459-467. SCHMIDT, A.-M. (1978): "L'âge de Marguerite d'Angoulême", in: Queneau 1978: III, 185, 208. Jaioturren ospatuz, Eusko Ikaskuntzak ere gogotan izan zuen Margarita Erregina hitzaidi-ospakizun bat antolatuz (Iruñea, 1992-11-23/25). Ik. Arbeloa 1992: 15 eta 24 (humanistak); 15-16, 17, 24, 25, 26, 31, 35, 39, 41 eta 42 (Erreginareen obra); 18-19, 27, 50, 57 eta 66 (Kalbin, Beza eta kalbindarrekin harremanak).

177 Arbeloa 1992: 14-16, 17, 27. Febvre 1971: 132-171.

Barne-bilaketa horretan, eta bere politikan, franko fededun-gidari pertsegituri eskaini zion babes Nérac-en, lehenengo Meaux-ko taldeko G. Briconnet, Roussel edo Lefèvre Bibli itzultzaileari (1525-1530)<sup>178</sup>, eta gero, erasoetatik ihesi zetorren Kalbin-i (1534)<sup>179</sup>. Yon Oriak deskribatu dizkigu Margaritaren inguruko joan-etorri humanista-erreformazale hauek<sup>180</sup>, eta baita Kalbin-ekin izaniko harremanak ere<sup>181</sup>.

Dena den, Margaritaren eliz erreformazaletasuna epelegia iruditu izan zitzaion Geneva-ko buruzagiari, eta eztabaida teologikoa ere piztu zen honen eta Margaritak babesturiko zenbaiten artean (*nikomeditak, libertinoak*: 1543-1545). Margaritaren ataraxia humanistak edo tolerantzia erlijiosoak ez zuten asebate sekula Kalbin<sup>182</sup>. Hala ere, Kalbin-ek beti izan zuen Nafarroarekiko interes bizia, haren eskutizketan ageri denez: beraren kalkulu politiko-erlijiosoen barnean Nafarroari lekuri behinena zegokion Hexagonoan<sup>183</sup>.

Azkenik esan beharra dago, gainera, Genevak ongi ikusi zuela —presentean eta etorkizunean— Nafarroako Errege-Erreginek Erreformaren alde izan zezaketen giltza<sup>184</sup>: Erregina idazlea hil ostean (1549) eta Joana alaba erretaulkian esertzean (1555) Nafarroako Koroapean izan zuen Kalbinismoak egokiera politiko distiratsuen Albretarekin hasi eta Borbondarrekin gero.

## 6.2. Nafarroako Erreforma kalbindarra (1555-1572)

Idatzi izan denez, “el quietismo místico de Margarita de Navarra no satisfaría a su hija Juana de Labrit, quien sin embargo tenía un gran respeto por los ideales de su madre. [...]. Juana era mucho más realista e independiente que su madre”<sup>185</sup>. Joanaren gobernantzian, ba, inguruko Monarkien politika erlijiosoetatik aske jokatzeke adorez aski jantzia zen Erregina gaztea (1528-[1555]-1572).

Inguru guztian eraso nagusi zenean, Joana Erreginak tolerantzia eskaini nahi izan zien ideia eta mugimendu erreformatu protestanteei, lehen urrats bezala<sup>186</sup>. Erregina ez zen, ordea, 1560ko Gabonak arte Erreformara bihurtu, hain zuzen aurreko udan Teodor Beza-koarekin (Kalbin-en konfidantza osoko gizona berau) elkarrizketatu arte.

Erabaki pertsonal horren aitzinetik bazen, bestalde, Frantzian, Biarnon eta Nafarroan Erreformarekin “Ebanjeliora bihurtutakorik”<sup>187</sup>. Kalbinismoak hedapen-urte handiak izan zituen ordurako, eta are handiagoak hurrengo hamarkadetan<sup>188</sup>. 1560aren inguruko datu soziologiko batzuk ezagunak ditugu: Frantziako eliza kalbindarrak gutxi batzuk ziren 1540-1550. urteetan, baina 1555etik aurrera gertatu zen goraldi nabaria, 1561ean 500 eliza eta 2.150 lagunarte izateraino. Urte beretsuan, agian 18 milioitarik bi milioi zen protestante Frantzian<sup>189</sup>.

178 LECLER, J. (1969): *Historia de la tolerancia en el siglo de la Reforma*. Alcoy: Marfil. II, 6-7, 17-18.

179 Arbeloa 1992: 15, 17, 18-19.

180 Lecler 1969: 13-15.

181 ORIA, Y. (1984): “Calvino y la Corte de los Labrit en Navarra. 1534-1564”, in: *Príncipe de Viana*. 1984, 517-525. Margaritari buruzko tesi bat zor diogu, gainera, ikertzaile honi: ORIA, Y. (1981): *Mysticism in the Work of Marguerite de Navarre*. London. Dakidanez, argitaragabea.

182 Oria 1984: 521-522.

183 Léonard 1967: II, 81-84.

184 GARRISSON-ESTEVE, J. (1984a): “Le Protestantisme en Béarn (1560-1580)”, in: *Colloque/Orthez* 1984: 41-42.

185 Oria 1984: 522.

186 TUCOO-CHALA, P. (1970<sup>3</sup>): *Histoire du Béarn*. Paris: PUF. 49-50. Ez gara hemen sartuko hurrengo urteetako (in)tolerantziaren historia eztabaidatua azaltzen: luzeegi gertatuko litzateke.

187 Protestantismoak Frantzian eman zituen lehen urratsak: Léonard 1967: I, 276-280.

188 Léonard 1967: II, 77-145; II, 279-348.

189 Arbeloa 1992: 49, 64.

Higanauten alderdia gero eta handiago eta sendoagoa ageri zen, Parisen eta Probintzietan, eta ekinbide sozio-politiko berriei heltzeko prest zegoen, eta Estatu bera eskuratzeko ere<sup>190</sup>. Gerora asmo horrek porrot egin zuenean (1572ko *San Bartolome Gaua* deitutik aurrera), higanautek Monarkiaren barnean beren Estatu propioa eraikitzen jo zuten<sup>191</sup>, eta gerra-urte luzeen buruan lortu zuten hori muga jakin batzuen barruan (1598)<sup>192</sup>.

Eliza erreformatuek 1559an ospatu zuten Frantzia lehengo Sinodo Nazionala, elkarte kalbindarrei beren baitan antolamendu- eta fede-segurtasuna areagotuz (*Fede-Aitorpena*)<sup>193</sup>, Baina, gizartearen zinezko segurtasunik izateko hori nahikoa ez zenez, hurrengo bi urteetan fede-elkarte horiek tokian tokiko "jaun babestaileren" baten aterpea bilatu zuten, arrisku politikoei ere aurre egiteko asmoz<sup>194</sup>.

Ez da, ba, harrizkoa Nafarroako Erreginari —eta Erregeari— beren Erresuman ezezik Frantzia ere higanauten gidaritzaren garaienetakoa eramatea egokitu baldin bazitzaien<sup>195</sup>; baina, nolana ere, Erreginarenean erlijio-politika, batez ere bertoko protestantismoaren gain egin zen, arrakasta ezberdinekin Biarnoko eta Euskal Herriaren<sup>196</sup>, eta berorri oinarri pastoralak (Genevatik prestatuta zetozen Artzainak: euskaldunak eta beste)<sup>197</sup>, intelektuala (Ortezko Akademia, 1566)<sup>198</sup> eta eliz antolamendua (*Ordenantzak*, 1570-71)<sup>199</sup> ezarri eta indartzu.

Ez naiz hasiko aldakuntza hauek piztu zituzten gatazka, listak eta gerren historia errepikatzen. Horretaz xehetasunik nahi duenak eskura du orain Olaizolaren lana, aurreko funtsezkoak aiantzi gabe<sup>200</sup>. Komeniko da, ordea, Erreginarenean profila humanista eta intelektualak zer bait esatea, garai batean ama bezala, guztien mezena ezaguna ezezik idazlea ere izan baitzen Joana Albretekoa.

Cazaux-ek eman digu oraintsu idazlearen berri. Margarita amaren eta Joana alabaren arteko harreman poetikoa da ezagutzen diogun lehen lan literarioa, eta, bestalde, 1565ean lau soneto utzi zizkigun Erreginari<sup>201</sup>. Horiek horrela, kulturaren historian Joana Erregina batez ere Erresuman sustatu zituen besteren obra literarioengatik eta bultzatu zuen irakaskuntzagatik dugu aintzakotzat hartzekoa.

Artzainen prestakuntza aipatu dugu bidenabar: horixe izan zen Erreginak ongien zainduta heziketa-barrutia, baina beti ere horretara mugatu gabe. Oro har, Ordenantzetan ez da

190 "Frantziako Erreforma eta aniztasun erlijiosoaren arazoa Estatuan" gaiari buruz azalpen ongi landua: Lecler 1969: II, 6-194. Léonard 1967: II, 88-89, eta beronen oharretako bibliografia (395, 52. oh.), 95-105.

191 Léonard 1967: II, 115-122.

192 Léonard 1967: II, 131-139.

193 Léonard 1967: II, 91-95.

194 Léonard 1967: II, 118-119. Lecler 1969: II, 11-12.

195 Léonard 1967: II, 89, eta 53. oh. bibliografiarekin (395-396). Aipatuko den Dubarat 1926: 32. Dakigunez, Nafarroa-Biarnokoetako herrialdean orduan sorturiko Erreforma/Koroa nafarraren arteko ezkontzaren oroitza-penak 1620ko Biarnoren aurkako erasoan ere egun-argitara etorri ziren. Léonard 1967: II, 293-294.

196 Ik. Urbain-en oharra: URBAIN, D. (1984): "Originalité de la discipline des églises réformées du Béarn aux XVIe et XVIIe siècles", in: Colloque/Orthez 1984: 200. Baina higanaut euskaldunak ez hain ugari izateak ez du esan nahi, nahitaez, konformidatez pisu txikikoak edo indar ideologiko kaskarrekoak izan zirenik, Leizarraaren hitzaurreek berek iradokitzen diatenez. Ik. Olaizola 1993: 188-190.

197 Olaizola 1993: 121, 126-127. Ik., gainera, beheago aipatuko den Dubarat 1904: I-h. or.

198 Olaizola 1993: 165-171. GARRISSON-ESTEVE, J. (1984b): "L'Académie d'Orthez au XVIe siècle". in: Colloque/Orthez 1984: 77-88.

199 Garrisson-Estève 1984a: 46-50. Olaizola 1993: 137-142. Urbain 1984: 191-198.

200 Olaizola 1993: 145-156. Ritter 1951-52. DUBARAT, V. (1900-1904): *Documents et bibliographie sur la Réforme en Béarn et au Pays Basque*. Pau: Imprimerie Vignancour/G. Lescher-Moutoué. DUBARAT, V. (1926): *Le Journal du Siège de Navarrenx (1569)*. Tarbes: Imprimerie Lesbordes.

201 CAZAUX, Y. (1984a): "Jeanne d'Albret écrivain, ses relations littéraires et son mécénat", in: Colloque/Orthez 1984: 29 eta 33. Frantsesez idatziak dira idazkiok.

falta haurren hezkuntzarekiko araurik (4. art.)<sup>202</sup>. Egia da, garaiko egoeraren barnean, samurragoa gertatu zitzaioela goi-eskolak sortu eta eratzea, herri xumearentiako irakaskuntza orokorra antolatu eta hedatzea baino. Hala ere, asmo honen alde egindiko ahaleginengatik idatzi izan da hau: “Quelle vitalité intellectuelle et quelle forte de caractère chez cette femme pour que dans le tumulte et les traverses de sa vie courte elle ait trouvé le temps et le moyen, non seulement de pratiquer les lettres mais d’encourager leur formation et leur développement”<sup>203</sup>.

Herritarren kulturarekiko eta Jainkoaren Hitzaren hedapenarekiko politika-testuinguru honetan zetorren, ba, Erreginaren hizkuntz politika ere. “Hizkuntz politika”, esamoldea berria dugu, noski, baina Albreteko Joanaren asmoaren mina hori ere bazen: Hitzaren —predikatuan emanaren, eta idatziaren— kultura ahalik herritar gehienei zabaltzea. Ikusi besterik ez dago.

### 6.3. Joana Albretekoaren hizkuntz politika

Esan dugunez, literatur lanak frantsesez idatzi zituen Erreginak, baina horrek ez du esan nahi Erreinuko gizartearen garaiko egoera soziolinguistikoiari jaramonik egin ez zionik. Frantsesa baino lehen, bere menpeko herritarrenak zituen okzitaniara (biarnesa, kaskoina) eta euskara, eta biak hartu zituen aintzakotzak, hura harreman ofizialetarako eta biak egitarau kulturean ere.

Urte hauetan, hain zuzen ere, garrantzizko erabaki deigarri bat dago biarnesari buruz: Biarnoko Estatuaren eskeari erantzunez, Errege-Erreginek, betidanik bezala, administrazio-ebazpenak biarnesez ematen jarraitzea agindu zuten (1556). Erret Agindu honen testua biziki interesgarria dugu, Monarkia txiki ongi errotu (baina inondik ere ez garaiko kultur korranteetatik arrotza zen) baten hizkuntzekiko sentiera ulertzeko.

Lo Rey et Regine entenden volen et ordonen que toutes pattendes privilegies pleyteyatz et autres actes de justice sien feytes en lengadge vulgare deu present pays de Bearn mandan a toutz lors secretaris justiciers et officiers ainxy lo far feyt a Pau lo vingt quate jours de julh MCV cinquate sieys ainxi signat. *Du Colom*<sup>204</sup>.

Frantziako Frantzisko I.aren Villers-Cotterêts-koaren (1539)<sup>205</sup> pare-pareko arazoa ukitzen zuten Aginduak, baina prezeski beste honen kontrako norabidean zihoan erabakia. Joanak, bere jatorrizko hizkuntza frantsesari, nahiz latinari, biarnesak aurre egin ahal izateko eman zuten Agindua; Frantziskok, berriz, lehenik Administrazioetik latina baztertzeko. Gerora, historiak ekarriko zuenaren arabera, azkenean herrialde ez-frantses hiztunetako Administrazioan frantsesa ezartzea ekarri zuen 1539ko ebazpenak, gainerako hizkuntzen kaltetan. Epealdi batean, bederen, biarnesa gertatu zen uretatik salbatutako muino bakarra.

202 Garrisson-Estèbe 1984a: 49

203 Cazaux 1984a: 34.

204 Erabakiak erantzuten zion Erreinuko Estatu edo Besoen aurreko eskariak zera zioen: “*Au Rey et Regine*. Remonstren las gentz deus tres estatz de Bearn cum per temps immemorial lor ayen usat et acostumat haber toutes pattendes privilegies et far toutes scriptures et pleyteyatz en justice en lo lengadge bearnes suplican tres humblement placie mandar aquero far entertenir et no expedir aucunes pattendes de provisions de tiltres appointamentz ny autres affars de justice confirmations de privilegies autrement que en lodit lengadge bearnes aixi signatz, *De castanher sindicq Bearn*”. (Pirinio Atlantiarretako Departamentu-Artxiboetan: C 684 Fº 66 eta C 685 Fº 43). 1556ko Erret Aginduaren argigarri dira 1564ko *Stil de la Justice deu Pays de Bearn* en XXVIII. Errepublikako IV. artikulua, eta hurrengo mendean *Fors* et *Costumas*-en ikus litekeena. (M. GROS-CLAUDE-ri zor diottestu hauen albistea: (1986): *La Gascogne. Témoignages sur deux mille ans d’Histoire*. [Paul: Per Noste. 87).

205 BRUNOT, F. (1906): *Histoire de la Langue Française*. Paris: A. Colin. II, 30-32. BRUN, A. (1973 [1923]): *Recherches historiques sur l’introduction du français dans les Provinces du Midi* 87-90, 421-428.

1556ko Aginduak eta berorretan ageri zen Nafarroako Koroaren jarrera linguistikoak, nahiz eta Administrazioari begira bakarrik ziharduen kasu horretan, zeharbidez garaiko eta hurbileko kultur joera linguistiko arriskugarriren batekin bazuen zerikusirik. Izan ere, Agindu haren bidez Erret Gorteko jende eta ohitura frantsesen eta frantsesetzailen hegemoni nahiari (gogora Margarita amaren inguru literarioa, adibidez) ondoan langa jarri zitzaion<sup>206</sup>. Biarno barneko frantses/biarnesen tirabira kulturalean okzitaniaren aldeko partidua hartu zuen 1556-1564.etan Joana Albretekoak, 1539.aren aurreko erabaki biarnesak birretsiz, eta Villers-Cotterêts-ekoari *ezikus*i eginez<sup>207</sup>. Hortaz, bi Erreinu berezietan (Frantzia eta Nafarroan) hizkuntza ofizial bana eta ezberdin gordeko ziren, Administrazioan gutxienik, eta kulturen ere bai berehala, ahal izango zen neurrian.

Frantsesaren hedapenaren historiariek gogoz begiratu izan dituzte XVI. mendeko Biarnon eta, zabalago, Gaskonian gertatutako hizkuntz aldakuntzak<sup>208</sup>. Okzitaniaraz arduratuagoekek ere interesez berraztertu dute mende hartako egoera soziolinguistikoan jazotakoa: Kremnitz eta Robert Lafont-ek egoera bere orokorrean ikertu dute, eta Gardy-k, garaiko idazle gaskoi edo biarnesen hizkuntz hautapen-arazoak ulertu nahirik, B. du Poey-ren obra eta ingurua (1551) behatu ditu<sup>209</sup>.

Okzitaniaren beraren barnean, Nafarroako Erresumari (Biarno-ri) eta Gaskoniari begira, Kremnitz-ek, XVI. mendea, hizkuntzen arteko garai gatazkatsu bezala ikusi du; baina bi herrialdeen kasua ez zen berdina. Frantsesari aurre egitean, abiapuntu eta erantzun soziolinguistiko kontrajarriak nabari dira Biarnon eta Gaskonian<sup>210</sup>. Egoeraz eta berorren kontzientziaz ezberdinak ziren bi espazioak.

Biarnesaren eta gaskoieraren bi egoerak, *idazteak* bereizi zituen: Ehun Urtetako Gerratektik honantz (1475) frantsesa ari zen bilakatzen Gaskoniako hizkuntza idatzia (latina baztertuz, eta gaskoiera “ez-hizkuntza” bihurtuz). Biarnon, ordea, Nafarroako Koroapean zegoenez, gauzak bestelakoak ziren: lehendik, biarnesa zen hizkuntza idatzia, eta, gainera, erabaki politikoz boterearen hizkuntza idatzia izaten jarrai zedila deliberratu zuen Nafarroako Koroak. Biarnoko frantsesa betekizun tekniko osagarrietarako gorde zen bakarrik, baina erret Administrazioa —juxtu, Gaskonian gertatu zenaren alderantziz— biarnesez ariko zen<sup>211</sup>. Azken buruan, subiranotasun politikoaren arazoa zen hizkuntzarena ere.

Villers-Cotterêts baino lehenagotik zetorren frantsesaren hedapen “logikoari” kontrako bi-dearekin erantzun zioten biarnesaren aldeko 1556ko Aginduak, eta 1560. hamarkadako era-

206 Frantsesak Biarnon zuen itzal eta burupeaz ik.: DARRIGRAND, R. (1984): “Remarques sur la langue des *Psalmes*”, in: *Colloque/Orthez* 1984: 272-273.

207 1556ko Agindua ez zen asmo bereko lehenengoa, izan ere 1533ko beste baten ildo beretik ari baitzen, baina bai egokiera historiko askoz erabakiorrago eta esnahitsuagoan zetorrena. Ik. GRANGE, J.M. (1984): “La Prédication du protestantisme en Ossau imposée par Jeanne d’Albret. 1563”, in: *Colloque/Orthez* 1984: 188.

208 Brun 1973: 137-144.

209 KREMnitz, G. (1984): “Remarques sur les données du conflit linguistique en Béarn et Gascogne au XVI<sup>e</sup> siècle”, in: *Colloque/Orthez* 1984: 259-269. LAFONT, R. (1984): “Situation de la langue d’Arnaud de Salette”, in: *Colloque/Orthez* 1984: 373-383. GARDY, Ph. (1984): “Situation linguistique et littéraire d’un écrivain béarnais contemporain d’Arnaud de Salette: Bernard du Poey”, in: *Colloque/Orthez* 1984: 327-347. Azken honek interes puntual berezia du guretzat, Du Poey-ren eskuetatik kaleratu baitzen (1554) Joana Albreteko Enrike printzearen jaiotza-olerkia (ik. 355-357. or.), eta Lafitte-ren omenaldi liburuan gureratua: HARITSCHELHAR, J. (1983): “Une poésie basque du milieu du XVI<sup>e</sup> siècle (1554) célébrant l’anniversaire de Henri III de Navarre (le futur Henri IV)”, in: (1983): *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia. 259-274. Ondoko mende-etako zenbait zehaztapen: GOYHENETCHE, M. (1983): “Euskararen erabilpena Nafarroako Erreinuari XVI-XVIII. mendeetan”, in: (1983): *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Bilbo: Euskaltzaindia. 251-257.

210 Hemen, Kremnitz-en ideia jasoz, *Biarno* = Nafarroako Erregeren herrialde hizkuntz okzitaniarrak dira, eta *Gaskonia* = Frantziako Erregeren hego-mendebaldeko herri hizkuntz okzitaniarrak.

211 Kremnitz 1984: 260-262.

baki bipilek<sup>212</sup>. Bestalde, Erreformaren testuinguruan<sup>213</sup>, biarnesaren hobespen politiko honek, bere bidetik zekarren (eta honez gero ez gara harrিতuko), hizkuntzaren eskolaratzea ere.

Pausoz pauso, hizkuntza biarnesa eta Erreformaren arrakasta Erresumaren arazo “nazio-nal” bihurtzear zeuden Erreginaren pentsamendu politikoan<sup>214</sup>, jada hautsia zen Kristandade etarorarra ahantzi eta botere-gune “nazonalak” eraikitzen ari ziren XVI. mende hartan.

Proiektu kultural horren mesedetan eskatu zion Nafarroako Gorteak Pey de Garròs-i salmuen itzulpena egitea: 50 salmutako argitalpena 1565ean kaleratu zen Tolosan (*pux que lo Rey ac vo*)<sup>215</sup>. Horregatik eta egokiera orokorragotik begiratuta ere, 1565eko data hau mugarri historiko bezala ikusi izan dute historiariek okzitanieraren historian<sup>216</sup>, baina Salmutegi inausi hura ez zen aski, eta osorik nahi zenez, 1568an Arnaud de Saleta-i [fr.: Salette] eskatu zion Koroak itzulpen biarnes osoa. Asmo hau Erreforma finkatzeko Erreginaren urte hartakoxe itzulpen-programa oso baten barnean zegoen<sup>217</sup>. Lana, 1571n bukatuta zegoela badakigu, zeren eta itzulpena berrikusteko batzordea eratu baitzuen urte horretan Pabeko Sinodoak<sup>218</sup>; hala ere, Erregina hiltzean, 1583ra arte atzeratu zen argitalpena (seguraski, Koroak ordaindu ez zuen edizio batean, baina Leizarragarena ez bezala, Erresuma barneko moldiztegi sortu-berrian inprimatua). Salmutegi biarnes hau, Leizarragaren Testamentu Berriaren antzera, beste-lako zenbait lanekin hornitua atera zen (liturgi gaiak, otoitzak, katexima), eta musika eta guzti eman zen, gainera<sup>219</sup>.

Azpmarragarria da deus gutxi dakigula Salmutegi biarnes honen arrakasta eta zabal-kunde sozialaz. Itxura guztiz, 1583ko argitalpen hori azken finean gehiago izan zen 1560-1572. urteetan Joana Albretekoak biarnesaren alde sustatu eta gidatutako hizkuntz politikaren eta autorearen ahaleginen emaitza, horrelako edizio baten aldeko 1583ko erabaki ofizialena baino, zeren 1572tik aurrerako urteetan Frantziako Erreformatan ere herri-hizkuntzen aldeko jarrekek ez baitzuten jada beste aurreko garai haietako indar bera<sup>220</sup>.

Datu guzti hauek —gurera hurbilduz— beste puntu jakingarri hau azpmarratuko ligukete: Saleta-ri egindako mandatuaren data 1568an uzten bada (eta honena izan zen batik bat, Garros-ena baino, okzitanierazko obra handia), euskal Testamentu Berriarekiko erabakiek

212 Pic-ek gogoratu ditu datu argigarriak: PIC, F (1984a): “Bibliographie de l'oeuvre imprimée d'Arnaud de Salette”, in: Colloque/Orthez 1984: 103, 2. oh.; 104, 4. oh. Ikus daitekeenez, Kalbin-ek gogoan izan zuen biarnesa, eta Erreginak bortxatu ere egin zuen apezpiku bat, liturgi itzulpenak egin zitzaizkion. Hizkuntz politikaren irizpideak ongi deliberatuta zeuden, ba.

213 Horrek ez du esan nahi, ordea, Artzaingo erreformatu jasoaren barnean zalantzaren bat edo beste ere izan ez zenik (Geneva eta Kalbin frantsesak baitziren). Kremnitz 1984: 263.

214 Kremnitz-ek baieztapen are ausartagoak ditu hemen iradokitzen denaren norabide berean: Kremnitz 1984: 263-265. Gisa berean mintzatuko dabesterik ere: ROUQUETTE, J. (1980): *La littérature d'oc*. Paris: PUF. 53. 54. Ik. SEGUY, J.B. (1968): “La Reforma protestanta del siglo XVI e las lenguas vulgares”, in: *Annales de l'Institut d'Etudes Occitanes. Colloque sur Pey de Garros et son temps*. 1968. 315-327. Erreformak (edo hartaz baliatuz nahiz hari aurre eginez) zenbait kasutan hartu izan zuen betekizun “abertzale” edo nazionalaz, ik.: Lecler 1969: II, 82-84, 143-144, 158-160, 206-208, 221-223, 259-260, 301-302.

215 SAINT-BEZARD, M. (1984): “Arnaud de Saleta e Peir de Garros traductors deus Saumes”, in: Colloque/Orthez 1984: 158.

216 CAMPROUX, Ch. (1971): *Histoire de la Littérature Occitane*. Paris: Payot. 84-85. BERRY, A. (1978): “Les Littératures du domaine d'oc”, in: Queneau 1978: III, 1520-1522. Rouquette 1980: 53.

217 Pic 1984a, in: Colloque/Orthez 1984: 93. Saleta-ren obrari buruzko hainbat xehetasun aurki dezake idazlan honetan irakurleak.— Beste hizkuntzetako Bibli itzulpenen hedapenerako laguntzarik ere posible ikusten zen Nafarroan, eta Casiodoro de Reina-ren gaztelaniazko Bibliaren argitalpenerako Nafarroako Erreginaren babes-proposamenik ere izan zen (ik. Olaizola 1993: 119-120, 122, 125).

218 Pic 1984: 93-94.

219 “Los Psalmes de David metuts en rima bernesa. Per Arnaud de Salette. A Ortes. Per Louís Rabier, Imprimur deu Rey. 1583”.

220 Pic 1984a: 94-96.

(1563koak, eta okerrean 1564koak) Erreginaren politika orokorrean aurrea hartu zieten itzulpen-mandatu biarnes ofizialei, bai lanen tamainaren aldetik, bai argitalpen-dataren aldetik.

Esandako guztiok, ba, biziki aztergarri bihurtzen dute Leizarraga eta leizarragatarren historia.

## 7. LEIZARRAGA ETA LEIZARRAGATARRAK (1563-1571)

La Rochelle hiri eta portu xarmantean ikusi zuen egun-argia euskarazko lehenengo *Testamentu Berria-k*, sona handiko historia protestantea ezagutu zuen hiri batean, beraz<sup>221</sup>. Hain zuzen urte hartantxe, 1571n, bildu zen han Frantzia osoko Eliza Erreformatuen Sinodoa, nahiz eta aurreko urtean eta ondokoan setiaren bortitzak gaudituz behar izan zituen hiriak<sup>222</sup>. *Testamentu Berria*-ren jaioturte eta hiria ongi inguru kalbinistan suertatu ziren, hortaz.

### 7.1. Erabaki ofizialak

Obra hau, ordea, ez zen autore edo itzultzaile saiatu bakar baten erabakiaz zetorren zer-bait: tartean, noski, itzultzaile jakin bat zegoen, baina baita lankidegorik ere, eta are gehiago, Erakunde ofizialen asmoa ere.

Joanes Leizarragak zortzi-hamar urtetako lana burutu zuen; bera ageri da hitzaurreetan lanaren sinatzaile bakar bezala<sup>2 2 3</sup>; baina, testuan, badu ondoan izan zuen taldeari buruzko aipurik:

& voyant l'occasion qui se presentoit [Jainko-Hitzaren itzulpena egiteko, alegia], esperant aussi qu'il y auroit de plus suffisans que moy qui tiendroyent la main à l'oeuvre (comme il s'est trouué quand par ordonnance du Synode de vostre pays de Bearn, il a esté question de reueoir & conferer la besoigne)... [Azpm. nirea]<sup>224</sup>.

...eta ikussirik ecen occasionea presentatzen cela, bayeta sperança ecen ni baino sufficientagoric-ere içanen cela obrán escu eduquiren luenic (*nola eriden-ere içan buita Bearnoco synodoaren ordenança lan eguina visitatu eta coneritu behar içan denean*)...<sup>225</sup>.

Eta baldin sperança dugun beçala, oraindrano eguin den hunetán heuscaldunac goçoric edo edificationeric hartzen badu, hunetan *emplegatu içan diradenéc* bihotz

221 LEBAUD-DAVID, J. (1989): *La Rochelle protestante du XVIe à nos jours*. La Rochelle: Editions "La Rochelle". Hirian berrikitan irekitako bi irarkola zeuden: bata (Berton-tarrena, 1562-1573), eta bizitarik luzeena izan zuena, Haultin-tarrena: "En 1571, nous trouvons les Haultin, imprimeurs et libraires, qui y exercèrent leur métier jusqu'en 1620. Ils formaient une dynastie d'imprimeurs, tels les Hus à Saintes et les Didot et les Estiennes à Paris" (36-37. or.). Esan dezadan, bide batez, Bibliaren hainbat itzulpen protestante bildu dituen La Rochelle-ko "Musée Protestant"-ean ez dugula ikusi ahal izan (1990ean) hiri berean argitara emaniko Leizarragaren liburuaren bisitarietzako aipurik.

222 Nantes-eko Ediktuak (1598-1685), Kalbinismo frantsesari ehun eta gehiago herri eta hiri utzi zizkion Frantzia, higanautek beren segurtasun-hiriak izan zituzten. Hauetako handigna —estimatu eta gorrotatuen— La Rochelle izan zen. Berau bilakatu zen, azkenean, barnekoentzat guztietan seguruen eta Koroarentzat, portuagatik, arriskutsuena. Ik., gainera, Lebaud-David 1989: 90-91, 97-106: "Rappelons que ce siège dura environ sept mois et coûtâ la vie à vingt mille sur quarante mille hommes du côté armée royale, et à cinq ou six mille sur vinat mille ames, côté rochelais, et que trente mille coup de canons furent tirés centre la cité" (91. or.). Beraz, Leizarraga, bi setiaren artean egon zen La Rochelle-n, inprima-lanetan.

223 Frantsesez, Erreginari "son treshumble & tresobeissant seruiteur lean de Liçarraque de Briscous" bezala aurkezten zaio; euskaraz, oster, "bere berbitzari guziczo chipiac eta guziczo obedientac, loannes Leizarraga Berascoizcoak" egiten dio eskaintza Erreginari, "Rochellan Agorrilaren 22. 1571"-n. Leizarraga 1990: 243, 249, 253.

224 Leizarraga 1990: 247.

225 Leizarraga 1990: 252. Orijinak zinu diakritikoz emaniko "n"-ak "n" etzanez/tentez emango dira lan honetan Azpm. nirea.



harturen duté, oraindanic gogo-ere duten beçala, eguin denaren berriz ikusteco eta corregitzeco [Azpm. nirea]<sup>226</sup>.

Leizarragarena ez zen, ba, izan ahalegin pertsonal eta pribatua, aurreko orrialdeetan ikusi ditugun urruneko nahiz hurbilagoko eragin-ekimenen bidetik iritsi zitzaigun emaitza ,baizik, eta Erregina-Sinodoekin batera beste laguntza sozialak ere bildu zituena baino. Joanes Leizarragak bere hitzaurreetan gogorutzen digunaren arabera, babesle boteretsu batzuen izenak badakizkigu:

Eta dena den beçala erran deçadançat, Cure verthute handiac, Andréa [dio Erreginari], eta principalqui nic orain aipatu ditudanac, bayeta orduan cure Loctenant general Agramondeco launaren ezhortatione handiac, eta Belçunceko eta Meharineco launén eta cenbeit berce ene adisquideren sollicitatze ardurazcoac, ene goga eraciteco asco eta sobera içanagatik...<sup>227</sup>

(Hona iristean, gogora dezagun bide batez, urte haietan Erreformak Euskal Herrian botatako erroek bizitza luzea izan zutela gerora euskal kulturari, nahiz eta mugimendua bere osoan galtzaile politiko gertatu, erlijio gerrateen ondoren)<sup>228</sup>.

## 7.2. Leizarragaren talde-lagunak

Leizarragaren saihets-aihu horietatik hasita, ikertzaileak saiatu dira Leizarragaren lankideen nortasunak argitzen: Vinson-ek bildutako xehetasunak osatuz (1891, 1898, 1908), Jaurgain-ek (1907) eta batez ere Lacombe-k (1931) eman dizkigute Leizarraga-ren lankideen albiste-apurrak<sup>229</sup>, berrikitan Olaizolak gaztelaniara itzulita eman dizkigunak<sup>230</sup>. Guztien iturriak Sinodo kalbindarretako agiriak eta *Rolle des offices* deitu bat dira<sup>231</sup>.

Ikertzaile hauek bildutako albisteei esker osa dezakegu ondoko laukia, talde-lagun baikoitzari buruzko datu aipatu guztiekin:

Leizarraga eta lankideak (1563-1601.eta) albistek

Urtea	Sinodoa	Aipatutakoak
1563, 14-III	Pabe	Lissarrague: itzulpenak egitera deitzen dute
1565, 01-V	Oloroe	Lissarrague: ordainagindua Lankideak: - Piarres Landetcheverry (Undurañe) - Sanz de Tartas (Sarrikutapia) - Joanes Etcheverry ("petit basque", de la Rive ere deitua. Donibane-Lohizune) - Tardetz (zuberotarra omen)

226 Leizarraga 1990: 254

227 Leizarraga 1990: 251-252. "Et afin que ie die ce qui en est, encares que voz grandes vertus, Madame, & principalement celles desquelles j'ay parlé, & les exhortations vehementes de monsieur de Gramont (qui estoit pour lors vostre Lieutenant general) ensemble les frequentes sollicitations de meesieurs de Belsunce & de Meharin, & quelques autres mes amis, ne fussent que trop suffisantes pour m'esmouuoir.." (245-246).

228 Olaizola 1993: 188-190. Beairtzeakoak dira, gainera: P. AGIRREK Belaoeire-r eskaini dion tesian sarrera historikoa eta bibliografia (argitaragabea).

229 Vinson 1983: I, 5-46; II, 521-529. JAURGAIN, J. (1907): "Le Nouveau Testament de Liçarrague", in: *RIEV*, I, 1907, 288. LACOMBE, G. (1931): "Du nouveau Sur Liçarrague et ses collaborateurs", in: *RIEV*, XXII, 1931, 363-366.

230 Olaizola 1993: 177-183.

231 *Synodes du Béam de 1563 à 1579 et de 1594 à 1623*, eta *Rolle des offices et mandementz de finances expediés par commandement de Monsigneur de Gramont* (1564eko apirilaren 27tik 1565eko azaroaren 28ra): azken honek itzultzaile-zuzentzaileei egiten zitzaizkien ordainketen berri ematen du. Jaurgain eta Lacombe-k aipatuak.

<i>Urtea</i>	<i>Sinodoa</i>	<i>Aipatutakoak</i>
1565, 5-IX	Salbaterra	De la Riue, Tartas (Nabarregose-tik), Landecheuerry (Rivehaute-tik), Tardetz (Bastidatik). Itzulpena bukatzeaz dago: ulergarria, euskalkien gainetik ere. Argitalpenerako laguntza birresten zaie, agindutakoaren arabera
1565, 10-VII	<i>Rolle</i>	Soldatak: Lissarrague, Tartas, La Rive (J. Etcheverri edo Chevery), Tardetz Itzulpenaren aurkezpena: bukatuta (30-IX)
1566, 5-VI	Nay	Bilduta: - Landacheuerry (Rivehaute-tik) - Tardetz (Bastida-tik) Lissarrague: beronen dohainak aipatu ziren
1567, 13-IV	Pabe	Lissarrague: ministraritarako aztertu eta onartua Tartas, Luc-era bidalia Lissarrague: Bastidara bidalia Tardetz, "Oxtauaeinx" (Ostibarre?) eta Donapaleu-ra bidalia
1568, 17-IV	Pabe	Bilduta: Landecheuerry, Lissarrague, La Riue eta Tartas
1569, 10-X	Lescar	Bilduta: Landecheuerry, Lissarrague, La Riue Erabakiak: La Riue, Nabarregose-ra, eta Tartas eta Lissarrague euskaldunen artera
1570, 13-VI	Lescar	Bilduta: La Riue, Landecheuerry, Lissarrague, Tardetz, Tartas
1571, 17-x	Pabe	Bilduta: La Rive, Tartas, Landetchevery Erabakia: Lissarrague, Bastida-ra
1573, 13-X	Pabe	Erabakiak: Landecheuerry Charre-ra, Lissarrague Bastidara, Tardetz Donibane eta Ostibarrera ( <i>Ostobatz</i> ) Lissarrague: inprima-gastuen ordainketa
1574, 15-XII	Pabe	Bilduak: Tartas, Donapaleutik Tardetz, Ostibarretik ( <i>Ostobatz</i> ) Lyssarrague, Bastidatik Erabakiak: Haurrak Leizarragaren eskolara TBren banakuntza, Barrutietan ( <i>colloques</i> ) Tartas, Salbaterra-ra
1577, 16-VIII	Pabe	Bilduak: Lissarrague, La Riue, Landecheuerry, Tardetz, Tartas
1579, 8-IX <i>(Urte-tarte honetan agiriak falta dira)</i>	Pabe	Bilduak: Licarrague, Landecheuerry, Tartas, La Riue
1594, 20-IX	Pabe	Ez ziren egon:

<i>Urtea</i>	<i>Sinodoa</i>	<i>Aipatutakoak</i>
1596, 20-VIII	Pabe	Lissarrague, zaharra zelako L'Andecheurry, Charre-ko minis. zaharra
1601, 17-VII	Pabe	Ez zen Liçarrague egon: gaixoak eta zaharra Bastida, beste Artzain baten kargu

Izenak, kasu bakoitzean agirieta ageri diren modura jaso dira lauki honetan

Horrela, ba, izenak ezezik talde-lagun bakoitzaren nondik norakoak ere ezagut ditzakegu. XVI.aren bigarren partean: lehen euskal idazle protestanteen historia, gaingiroki bada ere, jakiteko balio digute datuok.

### 7.3. Lanaren antolatze ofiziala

Halako erantzukizun ofizial handiko itzulpen luze batek, eliz mailan ere egitekoa antolaztea eskatzen zuen. Horretaz Sinodoetan badugu bizpahiru testu interesgarri, hemen bere horretan jaso beharko genukeena:

Lapurdin dagoen Leizarragari hona [Pabe-ra] etortzeko aginduko zaio, Testamentu Berriaren, otoitzen eta kateximaren itzulpena egin dezan, eta berak gogo garbiz hala nahi badu, herri honetan nahiz Nafarroa Beherean Ministraritzan zerbitzatzeko presta dadin, eta Eliz Kontseiluari eskatzen zaio bera manten dezala etorri nahi badu, izan ere bera etor dadila baita Erreginarene borondatea (Pabeko Sinodoa, 1563-martxo-14)<sup>232</sup>.

Lafitte eta Olaizolarekin batera, itzulpen-mandatu honen data, 1563an jarriko nuke. Mandatua, ordea, ez zen TBrako bakarrik, itzulpen-programa oso baterako baizik. Ikusita ditugun Erreformako itzulpen-egitarauen arabera proposatua, beti ere: Bibliaz gain, otoitzak, sakramentuak, katexima, irakurgaiak, etab.

1571ko argitalpenaren arabera badakigu, gainera, hamabi bat liburu-liburuska atera zirela argitara, eta itxura guztiz, hauetako batzuk bederen aparteko edizio bereziak ere izan zituztela<sup>233</sup>.

Mandatua, Erreginarene borondatez eman zitzaion, eta Sinodoaren bizkar joango ziren lan-gastu eta ordainketak. Lanari segida segurtatzeko hastapen ona zen hori, diru eta babes ofizialak ezezik, lankideak behar izanik ere, halakoak inguratu ahal izateko.

1564ko albisterik ez dugu: Leizarraga, inondik ere, bere gisara ari zen lanean. Baina bai hurrengo urtean: 1565eko udaberrian, Oloroen ospatutako Sinodoan. Lehen idazketa-lana burutu samarturik zegoen, nonbait, eta ohizko lan-molde kalbindarrari jarraiki, lantalde bat sortzearen beharra ikusi zen orduan, ofizialki Leizarragarekin lankidetzeta hertsian ihardun zezan:

Testamentu Berria lau Ministrari euskaldunek berrikus eta zuzen dezatela agindu da, eta beren familietatik at denbora luzez egon beharrean izango direnez, Bonnefont Jaunak hitz eman du haien gastuak ordaintzeko, egiteko horretan beren etxetatik

232 Lacombe 1931: 363-364: "Lissarrague qui est au pays de Labourt sera mandé de sen venir lcy pour semployer a La traslation du Nouueau testament prières et Catechisme en Langue Basque et pour se preparer asuervir au Ministere en Ce pays ou en La Basse Nauuarre sil se veut obliger purement, & sera prié le Conseil Ecclesiastique Lentretenir sil sen veut venir veu qLa volonté de la Roynne est quil Vienne". Ik. Olaizola 1993: 177-178.

233 Olaizola 1993: 181.

urrun izanen diren bitartean, eta bestalde —igandeetakoetatik salbu— beren predikulanetatik aske izanen dira<sup>234</sup>.

Hura, ba, zinezko lantaldea izan zen, beraien etxeak utzi eta elkarrengana lanerako bildua. Bakoitzari eguneroko soldata izendatu zitzaion, baina azpimarratu behar da aurrekontu ireki baten gain zihola lana, hau da, behar izango zen denbora hartzeko eragozpenik gabe. Eguneko hainbesteko batekin ordainduko zen egindakoa, horretarako Sinodoak agindu eta eskatuta zeuzkan dirulaguntzak elizetan bilduta ordainduko zena<sup>235</sup>.

Honetan oso zehatza da *Rolle des Offices* hori, zera baitio 1565eko uztailaren 10ean:

1565eko Uztailaren 10, Leizarragari, Testamentu Berriaren euskararako itzultzaileari, ezkongabeko Ministrari bezala dagokion soldata [ordainduko zaio] 1565eko Urtarrilaren letik hasita, Kontseiluaren aginduz.— Tartas-i, La Rive-ri (Joanes Etxeberri, eta Txeberri ere deituari) eta Tardetz-i, aipatutako itzulpenaren zuzentzaile eta berrikusleei 6 sos eguneko, datorren Sinodoa arte, lanean hasi ziren egunetik hasita.— 1565eko Irailaren azkena. Lehengo berei, 6 sosetako kopuru bera eguneko, berrikusketa hori amaitu arte<sup>236</sup>.

Berehala —soldatak noiz etorriko zitzaizkien begiratu gabe— jarri ziren lanean (Leizarraga lehenengo, zuzentzaileak gero), zeren hor Rollek dioskunez, uztailaren 10ean egin zitzaizkion hari ordainketa batzuk<sup>237</sup>, hilabete batzuk geroago, urte bereko udazken aurretik, eginda zeukan taldeak kontuemateko bere txostena, Salbaterako Sinodoarentzat (1565-iraila-5)<sup>238</sup>. Irailaren hondarretan lanean hari ziren eta, antza, artean puska batean segitzeko asmotan<sup>239</sup>.

Leizarraga-ren taldekideen lau izenak ezagutzen ditugu (laukian ikusi dugun bezala): Tardetz, Sanz Tartas, Piarres Landetxeberri eta Joanes Etxeberri (De la Rive ere deitua)<sup>240</sup>, Arestian aditzera eman denez, lantalde, honen eraketa kalbindarren lankidetzat-moldeen tradizioaren barnean ulertu behar da<sup>241</sup>.

#### 7.4. Hizkuntz ereduaren arazoa

Taldeak bi motatako itzulpen-zailtasunak aurkitu zituen, gutxienez, bere zereginen: Bibliaren itzulpen orori zegozkionak, eta euskara hezikaitz batekin moldatu beharrak zekartzatza-

234 Lacombe 1931: 364: "A esté ordonné que Les quatre Ministres Basques Verront et Corrigeront Le nouveau testament qu'il Leur faudra ce faisant demeurer Longuement hors Leurs familles, Monsieur de Bonnefont a promis Les faire payer de Leur despence, durant Le temps qu'estans absens de Leurs Maisons Ils Vaqueront audit Labeur dauantage Leur a este Accordé qu'ils seront Excusez de prescher en Leurs Eglises durant Ledit temps excepté Le dimanche".

235 Leizarraga eta bere taldearen lanaren finantzaketa hau elizek eraman zuten batez ere, osorik ez baldin bada: Olaizola 1993: 179-180. Pentsa liteke erbesteko eliza zaharragoetan ikusitako burubidea segi zela kasu honetan ere.

236 *Rolle des Offices*: ik. testu itzulia, Olaizola 1993: 179.

237 Olaizola 1993: 179.

238 "M. de la Rive & les deputez pour voir La traduction du Nouveau testament faite par M de Lissarrague ont fait bon rapport de Ladite traduction Estans en différent de quelque dialecte ont este Remies a gens qui Entendent Le Language telz qui Leur Semblera bon d'eslire pour Les Mettre hors de different au Reste ont esté priés de faire diligenter de voir La traduction du Nouveau testament aux mesmes Conditions que desus Et le magistrat prie de subuenir aux fraix ce qu'il a promis" (Lacombe 1931: 364).

239 Jaugain 1907: 288: "Dernier septembre 1565. Aux mêmes, pareille somme de 6 s. par jour durant qu'il vaqueront à ladite traduction".

240 Tardetz, horrelaxe agertu ohi da ("z"-rekin). Joanes Etxeberri hau lapurtarra zen, donibandarra: Euskal literaturan beste bi "Joanes Etxeberri" ere baditugunez (Ziburukoak, Sarakoa), honi "Etxeberri Donibanekoa" deitu beharko genioke.

241 Millet 1992: 765-870 (hirugarren partea: "Du latin au français"), 767-786 (bereziakiago: "La langue vernaculaire").

nak. Lehenengo arazoaz asko zekiten itzulpen-talde erreformatuek, eta Leizarragak ez zituen, nonbait, ahantzi aurreko hamarkada haietako protestanteen lanak<sup>242</sup>, berean erabil zitzakeen irizpideak alde aurretik ezagututa ihardun ahal izateko

Bigarrenaz, berriz, Leizarragaren testuetan bertan eta Sinodoetakoren batean ikus daiteke, nola arduratu ziren euskararen irtenbidea samurtzeaz, abiapuntua guztiz basa baitzen, eta etsigarria:

...eta guti falta cedin non ezpainendin choil guibelera, nacussanean hambatez ene empresa handiago, cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetic eta diuersenetic: eta oraino, translationetan behincat, vsatu gabea<sup>243</sup>.

Horregatik, "Heuskalduney" atarikoan, lanean ulergarri gertatzeko, euskararen "corpus"-aren gain jarri behar zen arreta gogoratu zuen Leizarragak, eta badakigu hain zuzen lantaldea ere horretaz kezkatu zebilela.

Gaineracoaz den becembatean, batbederac daqui heuskal herrian quasi etche batec berce-ere mintçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den: raçoin hunegetic sensu eguiaczotic aldaratu gabe, lengoageaz den becembatean *ahalic guehiena gucicy adi eraciteari iarreiçui içan gaitzatza*, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage bereçiri<sup>244</sup> [Azpm. nirea da].

Leizarragaren "ahalic guehiena gucicy adi eraciteari iarreiçui içan gaitzatza" esaldi horrek, euskalkien gainetik talde-lagunek euskaldun guztien alde egindako hizkuntz ulerkarritasunaren postura erakusten digu. Urte batzuk lehenago, 1565eko Sinodoari taldeak zuzendutako txostenean ageri zen hizkuntz batasun eta ulergarritasunaren kezka bera da, eta Erreginak berak okzitaniera biarnesean zaindu zuena, nonbait<sup>245</sup>. Luter-ek lehenengo eta beste hizkuntza-herrietan gero izandako arazo berak zituzten leizarragatarrek ere<sup>246</sup>.

242 ...hala-ere consideratzen nuenean, nola gure demborán-ere anhitz personage iaquinsuric Testamentu berriarren translationean empletatu içan den, hambat Latinez, Francesez, nola anhitz berce lengoage abratsez eta praticatuz: eta guero nola Translataçale beréc eta hayen ondoan bercéc anhitz gauçatan, bay sensuan bay lengoagean cer erran eriden vkan dutén: eta ikussiric ecen halacoequin comparatzera ez-deus baino ez-deusago nincela...". "...Toutesfois quand ie consideroye que mesme de nostre temps tant de sçauans personnages se sont employez à la traduction du nouueau Testament tant en Latin, François qu'en autres langues fort riches & usitees: & que depuis les mesmes traducteurs, & apres eux les autres ont trouué plusieurs choses à redire, tant au sens qu'au langage, me voyant moins que rien en comparaison d'eux..." (Leizarraga 1990: 252 eta 246).

243 Leizarraga 1990: 252. "& peu s'en fallut que ie ne desistasse entierement, voyant mon entreprise d'autant plus grande, que la langue en laquelle i'ay escrit est des plus steriles & diuerses, & du tout inusitee, pour le moins en traduction" (Leizarraga 1990: 246).

244 Leizarraga 1990: 254.

245 Olaizola 1993: 179. Grangé 1984: 183-184 (185): "Que podem hornir ençà: (...) dab 400 ans d'avança, la Reina Jana que hè «pan-occitan»: viure (viver), tots jorns (tostemps), ab (amb, dab), cascun (cadun), puixança (poder)... La reïna que's mescla los parlars de las soas numerosas senhorías"

246 Luter-en itzulpenari buruz ere batasun-zentzu hori azpimarratu izan dute hiztoriariek: "importante desde el punto de vista religioso por su enorme difusión y su autoridad, la obra bíblica de Lutero daría a Alemania, que hasta entonces se expresaba en casi doscientos dialectos, una lengua literaria cuyo fondo era el idioma hablado en Wittenberg" (Léonard 1967: I, 81).— Beranduago, baina herri txikiago baten hizkuntzaren, eslovenieraren, kasua ekar liteke hona: "J. Dalmatin (c. 1547-1589) original de Krsko, sobre el riu Sava, en el límite entre el baix-carniolà i l'estirià [eslovenieraren bi dialektu], en la seva traducció de la Bíblia a l'eslovè (Wittenberg, 1584) intenta de combinar les varietats lingüístiques dels autors protestants precedents. Així, la Bíblia de Dalmatin hi contribueix amb una síntesi supradialectal, amb aportacions de l'alt i del baix-carniolà i àdhuc amb algunes tènues coloracions del dialecte del Litoral" (BANERES, J. (1989): "Aproximació a la historia social de la codificació de l'eslovè", in: *Revista de Llengua i Dret*. 1989, juliol, 188).

Horregatik, hipotesi logiko gisa, uste izan liteke Geneva-tik etorritako irakasle handiak (Jean Raymond-Merlin<sup>247</sup> edo Pierre Viret: urte hauetakoxea zen Ortezeko Akademiaren erakuntza: 1564-1568)<sup>248</sup> eta Artzain erreformatuak, nahiz hemendik hara ikastera joandako gazte euskaldunak<sup>249</sup>, itzultzean, bide kultural berrien esperientziaz mintzatu behar izan zitzaizkiela Euskal Herriko itzultzaile hauei, eta beharbada arazoak argitzen lagundu, gertatzen ari zirenen jakitun ageri baita, ikusita daukagunez.

Euskal prosa jaioberriarren hizkuntz batasunaren eta hizkera estandarren alde zirenek, alde zurretik begiz jota zuten argitalpenaren hedapen herritarra eta herrian, eskola eta ketximaren bidez edo, irakurlego alfabetatua sortzea.

### 7.5. Itzulpenaren hadapena, eta euskararen eskolaratzea?

Erreginari, Sinodo eta noblezia euskaldun erreformatuei esker, Leizarraga eta beronen taldearen lana ez zen gaztelu-zoko batean galdu, baizik eta garaiko talde sozial nagusiek eman zioten herrira iristeko biderik.

Sinodoak agindu bezala, "kolokioetan" (hau da, eliza kalbindarrak ezarri zituen barruti geografikoetan) banatu ziren TBren edizioa (edo edizioak) eta liburu ezberdinak<sup>250</sup>, izan ere talde haren lanak (dozenaren bat iritsi da guganaino) banaka eta bereizita ere banatu baitziren<sup>251</sup>; besterik da, gero, Kontrarreformaren eta gerra galduen hodeipean noraino heldu ahal izan zen hedapen hura.

Bibliaren zabalkundea, ordea, ezin zitekeen izan arazo guztiz mekanikoa, eta kultur garapen berrietatik at gera zitekeena. Kristau-herriaren baldintza kulturalak aldatuz bakarrik lor zitekeen zinezko hedapena, alfabetatzearekin edo kultura eskolatuarekin. Horregatik (eta lehenik eliz arduradunen artean berezikiago zaintzeko arazoa zelako), euskarazko eskolaren lehen sorrera ere une hartan ikusi izan da.

Uste edo burutazioetatik errealtate ezagunera etorritz, esan dezagun itzulpen-lankidetzan gorputz hartutako hurbiltasun pertsonal-instituzionala ondoko hamarkadan ere luzatu zela, eskola-lanaren bidez. Argitalpena kaleratu ondoren Leizarraga bere lankide izandakoen haurren irakasle bilakatu zen hain zuzen, Sinodoaren testu honek erakusten digunaren arabera (1574):

Nafarroari dagozkionetan, Tartas jaunaren semea, Landetxeberri jaunarena, Tardetza, hirurak, urtebete Nafarroa Beherean izango dira euskara ikasteko, eta Leizarraga jaunaren eskutan jarriko dira eta gero ondoren Leseareko ikastetxean jarraikiko, Kolokioak aztertu ondoren, eta aipatutako haurrok Kolokio beraren Nafarroa Behereko Eliz diruetatik mantenduko dira<sup>252</sup>.

Hartutako erabaki honek eraman zuen Piarres Lafitte zera idaztera: "Bagaude ez ote zen izan eskual ikastoletan lehen-lehena!"<sup>253</sup>. Garbi dagoena zera da: euskal kalbinismoak ez zi-

247 PIC, F. (1984b): "Le catéchisme français-béarnais de Jean Raymond-Merlin. Etat de la recherche", in: Colloque/Orthez 1984: 207.

248 Garrisson-Estèbe 1984b, in: Colloque/Orthez 1984: 77.

249 1559tik aurrera ezagutzen ditugu Suitzara joandako gazte euskaldunak. Ik. Olaizola 1993: 122.

250 Olaizola 1993: 181, 183-184.

251 Olaizola 1993: 181, 183-184.

252 "Quant à la basse Navarre l'enfant de Monsieur Tartas, celui de Mr. Landecheuury, celui de Mr. Tardetz seront tous trois un an en La Basse Navarre pour apprendre Le Language Basque, & mis es mains de Mr. Lysarrague et puis Apres seront continuez au College de Leseare, apres avoir esté Examinez par Le Colloque & seront Entretenez lesditz Enfans des deniers Ecclesiastiques de la Basse Nauuarre audit Colloque" (Lacombe 1931: 365).

253 Lafitte 1972: 147.

tuela galdu nahi hemengo hizkuntz erroak, eta, beroriek segurtatzeko, hurbilena zuenari helduz premiazkoa ikusi zuela, “Seminario Ttipia” edo “Lehen Seminario” sortzea gerora Les-car-en, Ortezen nahiz Paben hezi zitezkeen artzangai gazteentzat, Erreginaren borondatez eta Sinodoaren erabaki eta diruz. Eskolagintzaren plangintza orokorrigoaren aldetik, garaiko ekaitz gogorren artean, hura bide-erdian geratu bazen ere, helburu nagusiak —erlijiosoak, kulturalak, politikoak— garbi ikusi zituen euskal Erreformak, Europako beste hainbat lekutan bezala.

## 8. ONDORIOBIDEZKO ZENBAIT OHAR

Azaldutakoen laburpen gisa, komeniko da azken oharpenen bat ematea, irakurlearen mesedetan eta orrialdeotako aztergai ardatzak bilduz.

1. Euskal prosa (idatzia, eta argitara emana: 1571), Bibliaren itzulpen baten altzoan jaino zen, baina ez erbesteko eragin sozialik gabe, garai beretsuan Europako zenbait herritan gertatu zenaren antzera baizik. Kanpoko lan-antolamenduen ereduie jarraiki burututako Leizarraga eta laguneren lanak, alde horretatik orijinaltasuna baino gehiago garaiotasuna du, ba, bere sorreran.

2. Beharbada Europakoa bere osoan ez ezagutu arren, ohartuta zeuden itzultzaileak molde honetako lanetan han gertatzen ari zenaz. Ikusi dugu, beste herrietan ere zein antzeko lan-egitarauak egon ziren 1520-1570,etako hamarka haietan.

3. Erreforma protestantearen, eta prezeskiago kalbindarraren, testuinguruan egin zen itzulpen lan hura: fede-erlijioso baten zerbitzuan eta kalbinismoaren hedapen handiaren urtetan hain zuzen (kalbinismo nafar-biarnes eskolatuak sustaturik, noski, eta Pabeko Sinodoan erabakita).

4. Baina lan ofizial horretarako maridatua eta babesa, eta haren hartzekodunak ere, nafarrak izan ziren, itzulpen-argitalpenak Nafarroako Erreginaren borondatez egin zirelako eta Nafarroa Behereko herriaren mesedetan, baina gainerako euskaldunak ere gogoan hartuta.

5. Deliberamendu ofizial hori, ordea, Erresumako politika erlijioso-linguistiko orokorraren katebegi bezala ikusi behar da: a) Erreinuko hizkuntzekiko politika orokor baten barruan (biarnesa/euskara vs latina/frantsesa); b) Eliz argitalpen-programa osoaren parte bezala (Biblia, baina baita bestelako eliz liburuak ere).

6. Erabaki politiko orokor horrek, ordea, ez zuen nondik jaiorik izango, aurretik ia mende-erdiko kultur bizitza eta ideia-mugimendu bat Nérac-eko Erret Gorte nafar ernazentista-erreformazale irekian bildu ez balira: Margarita eta bere alaba Joana, eta erbesteko pentsatzaile eta irakasleak, baina hemen bertoko proiektu politiko-kulturala ardatz bezala jarrita (Biarnoko Ortezen edo Paben bezala, Nafarroa Beherean).

7. Hizkuntz politika hark eta ondoriozko argitalpen-egitarauak bi euskarri ideologiko nagusi izan zituzten: a) Erreforma protestantearen Bibliarekiko pentsamendu teologikoa, eta b) Nafarroako Erresumari bere nortasun “nazionala” erlijioz eta hizkuntzaz ere, bien bidez indarberitu nahi zion asmo politikoa.

8. Hamarkada pasatxo batean (1560-1572) lortutakoek (argitalpenetan bezala berorien erabilpen sozio-kulturean) eta ondoko politika orokorrak ez zuten euskararen aldeko plangintza kultural berriaren geroa segurtatu ahal izan, Nafarroako Koroa Frantziakoarekin elkartuz joan zelako eta Erreformari, Hexagonoan oro har, Monarkien politika kontrarreformistarekin presentzia murriztu eta ahuldu zitzaiolako.

9. Biarnesaren Administrazio-ofizialtasunari gaina hartuz, Nafarroako Erregeen menpeko lurraldeetan orduan parekatu ziren lehenengoz, proiektu kultural bikoitz baten barnean, euskara eta biarnesa. Horrela, politikan gidari zen Erreforma Erreinu barnean elebiduna bilakatu zen, eta hizkuntza arrotzetatik bereizia. Horren balio historikoa nabaria da: Monarkia handiek hizkuntz zentralismora jotzen zuten unean jokatu zen horrela. Leizarraga eta Saleta, euskalduna eta biarnesa, biak izan ziren aldiberean Erreginak babestuak. Biarnesari erabateko ofizialtasun bakarra eman ordez, euskara ere kultur bideetara bultzatu nahi izan zen, ba.

10. Aurkeztu ditugun testuinguruek (kristau Elizen bi Erreforma kontrajarrien mundu kulturalek), leizarragatarren lanaren eta Erreforma Katolikoko argitalpenen pisu historiko erlatiboak ulertzeko balio lezakete. Kasu batean eta bestean, asmoetan eta errealitatean, hizkuntzaren garapen sozio-kultural haiek xede eta baldintza, osotasun eta muga, erritmo eta arrakasta ezberdinak izan zituzten.

11. Leizarragatarren lanak, mirespina baizik ez du merezi gure hizkuntzaren historian, are gehiago nolako handinahiez ekin zizaion lanari begiratu eta epe labur batean eskuratutakoa ikusten bada.

12. Lan "interesatua" izan zen hura -pastorala, alegia-, katolikoaren artean Kalagurriko Sinodalen erabakiak ziren bezalaxe, baina horrek ez die ukatzen argitalpen haiei zinezko jatorrasunik. Aitzitik, garaian garaiko erronkei erantzuteko hitzgunoak behar dituen bide berriak aurkitzen asmatu zuten Erreginak, Sinodoak eta lankideek, beraien eskumenean ez zegoen hurrengo arrakasta ukatu baldin bazitzairen ere.

13. Kasik lehenengoz eta behin, euskal Erakunde publikoek eta Elizak (Erreformaren garaiko irizpideei jarraituz, noski) elkartuta ekin zioten euskalgintzari, beren interesen ildotik, bai, baina nolana ere Euskal Herriaren kultur ondarea zapuztu gabe, eta aitzitik, proiektuak beronen gain eraikiz.

14. Erreforma Katolikoak eta Kontrarreformak Euskal Herrian bideratu zuten politikaren nondik norakoak hobeki ulertzeko ongi etorriko da, besteak beste, Eliza kristauek eliz jokatutako linguistikoa zabalago begiratzea, zerak aintzakotzat hartuz: a) Ekialdeko Eliza "nazionalen" hizkuntz politikak, b) Eliza Katoliko latinoaren Mendebaldeko irizpide eta praxi linguistikoa, historian zehar (Euskal Herriko Elizak hortxe baitzuen bere joku-barrutia, eta etiz idazleek, halabeharrez, horko eskeei erantzun behar izar baitziren), eta c) Hirugarren, XVI. mendeko Erreforma protestanteak izan zuen. hizkuntz politika<sup>254</sup>.

*Donostia. 1994-07-22*

254 Errepikapenetan ez sartzeko eta testua oraindik gehiago ez luzatzearen, ez dugu hemen bibliografi zerrendarik emango. Uste dugunez, irakurleak laster osatu ahal izango ditu aipu laburtuak aurreko oharretan emandako aipu osoekin.